# AURKIBIDEA

**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAZIOAREN ARAUDI OROKORRA**


**I. LIBURUA - KIROL KLUB ETA ELKARTEAK**

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

II. TITULUA. KLUBEN KATEGORIA

III. TITULUA. KLUB NAGUSIEN ETA MENDEKO TALDEEN ETA FILIALEN ARTEKO HARREMANA

- I. KAPITULUA. KLUB NAGUSIAK ETA MENDEKO TALDEAK
- II. KAPITULUA. KLUB FILIALAK

IV. TITULUA. PUBLIZITATEA

**II. LIBURUA- FUTBOLARIAK**

I. TITULUA. FUTBOLARIEN KIROL KALIFIKAZIOA

II. TITULUA. LIZENTZIAK

III. TITULUA. LIZENTZIAK ESKATZEKO ALDIA

IV. TITULUA. LIZENTZIEN ONDORIOAK

V. TITULUA ARETO FUTBOLEKO FUTBOLARIEN LIZENTZIAK

VI. TITULUA TEKNIKARIAK ETA HAIEN LIZENTZIAK

I. KAPITULUA. ENTRENATZAILEAK

II. KAPITULUA. TEKNIKARIEN BESTE LIZENTZIA BATZUK

VII. TITULUA. LIZENTZIAK BERTAN BEHERA UZTEA

**III. LIBURUA- LEHIAKETAK**

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

II. TITULUA. JOKALEKUAK

III. TITULUA. ALDERDIAK

IV. TITULUA. LEHIAKETAK, ORO HAR

V. TITULUA. LEHIAKETA MOTAK ETA JOKATZEKO MODUA

VI. TITULUA FUTBOLARIEN HAMAIKAKOA ETA ORDEZKAPENA

VII. TITULUA. KIROL KLUB EDO ELKARTE GARAILEEN ZEHAZTAPENA ETA AZKEN SAILKAPENA

VIII. TITULUA. PARTIDAK ETETEA

IX. TITULUA. BESTE SUBJEKTU PARTE-HARTZAILE BATZUK

X. TITULUA. AKTAK

XI. TITULUA. FEDERAZIO-BAIMENAK

XII. TITULUA. FUTBOL SELEKZIOA

**IV. LIBURUA. KIROL TEKNIKARIEN BIZKAIKO BATZORDEA**

**V. LIBURUA. ARBITROEN BIZKAIKO LURRALDE BATZORDEA**

**VI. LIBURUA ARETO FUTBOLEKO BIZKAIKO KOMITETIK**

**VII. LIBURUA. JURISDIKZIO- ETA ADISKIDETZE-BATZORDEA**

**BESTE XEDAPEN BATZUK**

**AZKEN XEDAPENAK**

**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**
**FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE FÚTBOL**

# ARAUDI OROKORRA

## I. LIBURUA

## KIROL KLUB ETA ELKARTEENAK

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA Aplikazio Arauak

1. Kirol Klub eta Elkarteak (K.E.), Eusko Jaurlaritzaren Kultura Fisiko nahiz Kirolari buruzko Ekainak 11ko 14/1998 Legeak, Kirol Federazioei buruzko Urtarrilak 31ko 16/2006 Dekretuak, Kirol Klub eta Kirol Elkartei buruzko Ekainak 22ko 163/2010 Dekretuak, Estatutuek eta Araudi espezifikoek eta beraien gobernu organoek agintzen dutena jarraitzen dute.

2. Modu berean, Federación Vasca de Fútbol-Euskadiko Futbol Federakundeak (EFF-FVF) berari dagokizkion eginkizunen arabera jokatuz eta Bizkaiako Futbol Federakundeak (FVF-BFF.) agindutako estatutari naiz arauzko xedapenak jarraitzen dituzte.

3. Araudi honetan klubeei egiten zaizkien erreferentziak, mota guztieteko klubeentzako eta kirol elkarteentzako eragin guztietarako ulertzen dira.

### 2. ARTIKULUA Eraketa

1. Klub baten eraketa aurrera eramateko, klub-en eraketa eta funtzionamendua arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren Kultur Sailaren Ekainak 22ko 163/2010 Dekretuan zehaztutakoa burutu beharko da.

2. Estatutari xedapenek dioten bezala, eraketa berriko klub bat edo A.D. Bizkaiko Futbol Federakundean adskribatu beharko da, eta honek puntualki EFF-FVF jakinarenpean edukiko du, zeinek era berean E.F.F.E.ari informatuko dio.

Informazio bera eskaini beharrean izango da noizik behinkako kluben bajaldiak gertatzen direnean; bi kasuetan, organo guztien konposaketaren zehazpenak azalduz eta, izanik, bertan izandako aldaketen edo ordezketen berri emanez.

### 3. ARTIKULUA Onura Publikoa

Ekainak 11ko 14/1998 Legeak eta Ekainak 22ko 163/2010 Dekretuaren xedapenek finkatutakoarekin bat eratutako klubak, eta Azaroak 28ko 282/1989 Dekretuak dioenez, "Onura Publiko"tzat aitortu daitezke, azken honen bitartez bete beharreko baldintzak

eta klub eta Kirol Federakundeen Onura Publikoen aitorpen izapidegintza mugatzen direlarik.

**4. ARTIKULUA Integrazioa Eta Kidetza Federazioan**

1. Txapelketa ofizialetan parte hartu nahi duten klubak, derrigorrez, FVF-BFF-an kidetuta egon beharko dute, araudiak ezarritako epean.

2. Aipaturako kidetzaren eskaera Bizkaiko Futbol Federankundearen aurrean formaldu beharko da, 5. artikuluaren 2. atalean erregulatutakoa izan ezik, eta indarrean dagoen legediak eskatutako dokumentazioa erantsiz.

3. Bizkaiako Futbol Federakundeak behin eskaera eta dagokion dokumentazioa aztertu eta gero, EFF-FVF jakinarenpean jarriko dute, eta azken hau, era berean, E.F.F.E.a.

4. Eraketa berriko kluba, 4. artikuluak ezarritako baldintzak bete ostean, Bizkaiko Futbol Federakundean, inskribatzen den txapelketatko azkenengo mailara atxikituta geratuko da.

5. Hala eta guztiz ere, klub batek bere egoitzari dagokion L.F.-ren ordez beste batean adskribatu nahi izan ezkero, BFF-FVFaren baimena beharko luke.

**5. ARTIKULUA Izendapena**

1.Klubaren izena ezin izango da izatedun beste baten bezalakoa, ezta nahasketa edo akatsera dakarren antzekoa, eta edozen kasutan, ezin izango du kanporatua izan den baten izena hartu, gutxienez bost urte igaro arte; kanporaketaren zergaitia ordaiketa ezak baliz, izena erabiltzeko zorra kitatu beharko du noski

2. Klub baten denominazio aldaketa helburu honekin konbokatutako Ez-Ohizko Batzar Nagusian aprobatu beharko da. FVF-BFF-ak bakarrik kontutan hartuko du, Eusko Jaurlaritzako Kirol Entitateen Erregistroko ebazpen bitartez, zeinak FVF-BFFan Kluben inskripzio epea bete baino lehen sarrera eduki beharko du, bere epemuga Ekainak 30 izanda eta taldeen osaketa erabakitzen den Batzar Orokorraren eguna.

3. Konpetizioan dauden bitartean FVF-BFFak ez ditu denominazio aldaketak onartuko, salbu eta FVF-BFFk berariaz aldaketa onartzen duenean. Horretarako eskabidea eta beharrezko dokumentazioa FVF-BFFk izan beharko ditu denboraldia bukatu orduko eta hurrengo denboraldirako efektuekin.

4. Areto Futbol eta Hondartza Futboleko espezialitateetan, publizitate efektuetarako bakarrik, dagokion izendapenari patrozinatzaileran izena atxikitu ahal zaio, aurretik FVF-BFF komunikatuz.

5. FVF-BFFak aurreko puntuetan ezarritakoa betetzeko dagozkion erabakiak hartuko ditu.

**6. ARTIKULUA Kluben Eskubideak**

Klub-en eskubideak dira:

a) Arauzko xedapenekin bat izanik, FVF-BFF-ak, EFF-FVF-ak eta E.F.F.E-ak antolatzen dituzten txapelketa ofizialetan parte hartzea, baita ere, federatuta dauden beste klub edo eta atzerriko taldeekin adiskidantzako partiduen jokaketa. Baita ere bere klasifikazioaren arabera eskubidea duen fase nagusietara.

b) FVF-BFFak eta EFF-FVF-ak finkatutako moduan, organo federakorretatik parte hartzea.

c) Federakor Estatutuek dioten bezala, FVF-BFF eta EFF-FVFaren Batzarre Nagusietan ahotsez nahiz botuz parte hartzea.

d) Eskudun organoetara jo eta kirol erlazioetatik eratortzen diren arauzko edo kontraktual diren betebehar edo konpromezuak bete daitezen ekin.

e) Organo berberen aurrean, legez edo interesez dagokizkion edozein kontsulta, galdapen edo eskaera egin eta arauz bidera daitezkeen errekurtsoen tarteraketa.

f) FVF-BFFri buruz eskatutako informazio guztia jaso.

**7. ARTIKULUA Kluben Eginkizunak**

Klub-en eginkizunak dira:

a) Federakor Estatutuen eta Arauen betetzeaz gain, euren gobernu-organoek baliozkotasun osoz harturiko akordioen eta behar bezala erregistratu diren Estatutuen edukinen betetzea.

b) Eskudun diren kirol organoen agintaritza onartu eta, era berean, beraien akordio, agindu edo jarraibideak eta, hala balitz, ezarritako zigorren betetzea.

c) Bere garaiean eta osotasun osoz ondoko ordainketen buruketa:

1. Edozein kontzeptu dela eta, BFF-FVFri edo EFF-FVFri dagokizkion kuoten ordainketa, baita ere, klasearen baldintzapean, Futbol jokalarien Mutualitateari dagokizkienak ere.

2. Ordenu jurisdikzionalek, eskagarri gisa edo aitortutako eskudun organoek ezarritako prestamenak, ordainsariak, edozein kontzeptu dela eta arbitroen ordainagirien zenbateko ekonomikoa, indemnizazioak, eta aldez aurretik bai estatutuekiko bai arauz ikusitako beste betebehar ekonomikoen ordainketa.

3. BFF-FVF, EFF-FVF eta E.F.F.Erekin, edo beste edozein klub-ekin eginiko eta epemugaz gain dauden zorren ordainketa.

d) Behar denean, Federakor aktibitateak bete daitezen laguntza eskaini, bai kirol bai zuzendaritzako organoetan partaidetza, ordezkakorretan e.a.

e) Eskura jartzea federazioarena BFF-FVF-a zehazten duen edozein izaeraren baldintza guztiak biltzen duten kirol-instalazio batzuk edo organismo eskudunak.

f) Goi mailako organoen lankide izatea, azken hauek eskatutako datu eta idatzi guztiak puntualki erantzunez.

g) BFF-FVFak eta EFF-FVFak antolatutako txapelketetan aktiboki parte hartzea.

h) Federakor helburuak lor daitezen aktiboki lan egitea.

i) Entrenatzen duten, denboraldi-aurreko partidetan aritzen diren, lagunarteko partidak eta/edo txapelketak jokatzen dituzten jokalari guztiek asegurua indarrean izatea

betetzea.

BFF-FVFri dagokio , artikulu honen c) atalean azaltzen diren betebeharrak aurrera eraman daitezen zein prozedura, modu eta, izanik, epe zehaztea; ez-betetze kasuan, estatutari edo arauzko xedapenen arabera, eta moeta honetako ezbetetzea emanik, gerta daitezkeen diziplina arloko erresponsabilitateei eta erator daitezkeen bestelako ondorioei ere kalte egin gabe, aipatutako honek/hauek Arautegi honek aurrikusten dituen neurriak finkatu ahal izango ditu/dituzte.

**8. ARTIKULUA Helbide Soziala**

1. Klub batek helbide soziala alda dezake, beti ere, bere organu konpetenteak aprobatu ezkero.

2. Helbide sozialaren aldaketa, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen Erregistroaren ebazpen bitartez baimendu beharko da, Uztailak 1 baino lehen, hurrengo denboraldia indarrean egon dadin.

**9. ARTIKULUA Kluben Arteko Paktu Eta Akordioak**

1. klubak komenigarritzat jotzen dituzten paktu eta akordio guztiak egin ditzakete, beti ere indarrean dauden xedapenen kontrakoak ez baldin badira; akordio eta paktu hauek legezkoak izango dira behin BFF-FVFan aurkeztu eta erregistratu eta gero.

2. Aipaturiko itunek edo akordioek efektuak izan ditzatela berariazko baimena ezinbesteko baldintza da BFF-FVF-aren aldetik. Eskaerak, baita ere beharrezko dokumentazioak, halako efektura, BFF-FVF-ean, sasoiaren eta hurrengo sasoirako efektuekin amaitzea baino lehen egin behar izango dute.

**10. ARTIKULUA Batera Egiteak**

1. Klub bat, probintzi berdinekoa den beste batekin bateratu daiteke eta bere Batzar Orokorrek horrela adostu ezkero, eta soilik futbol-sasoia amaieran burutu ahal izango da, hurrengo denboralditik aurrean indarra eduki dezan.

2. Bategite horretatik sortzen den kluba izen berri bat edo talde berria osotzen duten taldeen izen bat har dezake, bategite hau eraginkor izan baino lehen sortutako zergati guztien eskubide eta erantzunbehar guztietara subrogatuz. Honek aurrera jo dezan, eta eraketa, inskripzioa eta afiliazioa egin dadin, indarrean dauden xedapen guztiek zehazten duten dokumentazio guztia ekarri beharko du.

3. Txapelketa egoera dela eta, ondoko hau kontutan izan beharko da:

a) Bategitea eta gero sortzen diren klubaren taldeak, denboraldia bukatu eta gero txapelketa bakoitzaren barne kokatuta zeuden maila edo kategorian, adskribatuta geldituko dira, beti ere aipatutako adskripzio hau denboraldi horretako txapelketa maila bakoitzeko talde bati bakar bakarrik eragingo diola kontutan izanik.

b) Maila konkretu batean bi talde baino gehiago izan ezkero, beste talde guztiak behemailako mailan adskribatuta geldituko lirateke, beti ere azken maila honetan beste talde bat egongo ez balitz eta aipatutako maila hau azkenekoa izango ez balitz; horrela gertatu ezkero, talde bat edo talde bat baino gehiagok hurrengo mailara beheratu beharko luke eta, modu honetan, bateratzea ematen den denboraldian maila bakoitzean talde baten adskripzioa baimenduko litzateke.

c) 14. artikuluan zehazten den bezala, txapelketaren azkeneko mailan bi talde edo gehiagoren partehartzea baimenduko da.

4. Bateratutako kluben jokalariei dagokienez, Arautegi honen futbolarien estamentuaren xedapenek zehazten dutena jarraituko da.

5. Klub batek, beste klub baten areto futboleko sekzioa edo emakumeen futboleko sekzioa bateratu dezake, klub printzipalean alteraziorik suposatu gabe, zeinek absortzio aurreko nortasun juridiko berdinarekin jarraituko du.

6. Kasu guztietan, fusio eta bat-egiteek zentzu horretan hartutako kasuan-kasuko Batzar Orokorraren onespena beharko dute, eta formalizatu ahal izango dira, solilik, denboraldi bat bukatzean, hurrengoa denboraldian indarrean sartzeko.

7. Fusionatutako klubaren lehiaketetako parte hartzea E.F.F.Eak berariaz onetsi beharko du. Horretarako, eskabidea eta beharrezko dokumentazioa BFF-FVFren esku egon beharko da denboraldia bukatu orduko eta hurrengo denboraldirako efektuekin.

**11. ARTIKULUA Iraungitzea**

klubak ondo kausak direla eta iraungitzen dira:

a) Estatutuetan azaltzen direnak direla eta edo Batzar Orokorraren erabakiz.

b) Ebazpen judiziala dela eta.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan duen inskripzioa ezeztatzeagatik.

d) Legeek zehazten dituzten beste zenbait zergati direla eta.

## II. TITULUA

## TALDEEN MAILA

**12. ARTIKULUA Taldeen Maila**

Arautegi honetan zehazten diren baldintzak betetzeaz gain, taldeek, kategoria bakoitzean denboraldian izandako txapelketetan lortutako azken sailkapenaren arabera, beraien maila lortu, mantendu edo galdu egiten dute.

Talde bat kiroltasunagatik atxikituata dagoen mailan parte hartzeko derigorrezko baldintza da, Araudi Orokorreko hurrengo artikuluan ezarritakoa betetzea, bertan adierazitakoa txapelketako antolakuntzaren arau bezala hartuz.

**13. ARTIKULUA Partaidetza Baldintza Ekonomikoak**

1. Urte edo denboraldi bakoitzeko lizentzien tramitazio edo berriztapena baino lehen, klubek, kasuen arabera, federakundeko organu jurisdikzionalengatik onartuta edo kreditatuta dauden betebehar ekonomikoak, zordunduta eta ordainagiri jokalari, tekniko edo beste klubekin, osotasunez beteta edo modu egokian hartzekodunari ziurtatuta eduki beharko dute klubek.

Halaber, FVF-BFF eta EFF-FVFekin klubak euren zorretan egunean egon beharko dira.

2. Oraingo artikuluko atal 1ak diharduen gainerako behar ekonomikoetako kluben aldetik ez ordaintze suposizioetan, FVF-BFF-ak horri buruz erabakiko du, erregelamenduz aurrez ikusitako berme-neurriak hartuz eta, nahi den helburua arren ez lortu, haiek bere ordainketen jakinaren gainean egoteko baldintzak parte ez hartzeagatik adskribatuta egon daitezela lehiatzeko gaitasungabetuz.

## III. TITULUA

## KLUB NAGUSI ETA BEHE-MAILAKO EDO FILIALEN TALDEEN ARTEKO INTERLAZIOA

## I KAPITULUA

## KLUB PRINTZIPALAK ETA BEHE-MAILAKO TALDEAK

### 14. ARTIKULUA Dependentzia Harremana

Klub baten behe-mailako talde gisa beraien egitura konformatzen duten taldeak ulertzen dira, azken hauek beheragoko kategoria edo mailetan adskribatuta egonik.

Klub ezberdinek beheragoko kategoria eta maila guztietan taldeak izan ditzazkete, bakoitzean talde bakar bat izanik.

Salbuespen gisa, FVF-BFFak, beretxapelketen eskuduntzan, bere eskudun organoen bitartez, ezaugarri tekniko eta geografikoak kontutan izanik, lurralde-txapelketetan maila berdin batean talde bat baino gehiago batera egoteko baimena eman dezake, beti ere maila hau azkenekoa izanik.

### 15. ARTIKULUA Behe Mailako Taldetan Jokalarien Zerrenda

Klub nagusi baten eta bere behe-mailako taldeen arteko loturak, jokalarien zerrenda dela eta, ondoko ondorioak erakarriko ditu:

1. Hogeitahiru urte baino gehiagoko jokalariak, klubek dituen edozein taldeetan, bereizgabenik gabe, zelairatu daitezke, beti ere azken talde hau goi-kategoria edo mailakoa izanik; hala ere, jokalari bat goi-kategoria edo mailako taldean hamar partidu jokatuko balitu, jarraiean edo alternatiboki, eta jokatutako denbora erreala kontutan izan gabe, ezingo da behe-kategoriko edo mailako taldera itzuli.

2. Hogeitahiru urte baino gutxiagoko jokalariak, klubek dituen goi-kategoria edo mailako edozein taldeetan, bereizgabenik gabe, denboraldian zehar eta mugapenik gabe zelairatu eta berriz jatorrizkora itzuli daitezke, ondoko salbuespenak izan ezik:

a) “I” edo “AL” moetako federakor lizentzia duten jokalariek, berehalako aurreko mailan zelairatu daitezke, jatorriz luzatu zitzaien lizentziaz baliatuta, beti ere beraien lizentziarako finkatutako azken urte naturalean jaioak baldin badira.

b) Hamabost urte bete dituzten kadete mailako jokalariak, jatorriz luzatu zitzaien lizentziaz baliatuta, gazte- edo goi-kategoriko txapelketetan zelairatu daitezke.

c) “C”, “I” eta “AL” lizentziek, kategori berbereko klubek inskribatuta dituen talde guztietan zelairatzeko aukera ematen dute, beti ere hauek goi-kategorikoak izanik.

**16. ARTIKULUA Txapelketa Harremana**

Elkarmenpeko taldeen egoera txapelketan beti elkarren artean subordinatuta geldituko da, horrela, talde bat bestearen mailara beheratu ezkero azken honen maila-jaitsiera erakarriko du; gauza bera gertatuko da klubak edo behe mailako taldeak kirol emaitzengatik lortzen duenean goimailako taldeak galdutako mailarako igoera, behe-mailan dagoen talde bat ezin izango da goi-mailako kategorian edo mailan integratu, bertan talde nagusiaren azpi-talde batek jokatzen baldin badu behintzat. Nahiz eta talde nagusiak maila-igoera lortu, honen postua lortzeko eskubidea hobeto sailkatuta dagoenarentzat izango da.

## II. KAPITULUA

## ORDEZKARITZA KLUBAK

**17. ARTIKULUA Ordezkaritza Harremana**

1. Klubek elkarren artean ordezkaritza akordioak finka ditzazkete, beti ere babesemaile taldea babes-jasotzaile taldea baino kategoria edo maila nagusiagoan militatu ezkero eta azken honek eskudun organoaren espresuko baimena lortu eta gero, noski; egoera FVF-BFF, baita FVF-EFF eta RFEF-E.F.F.E.

2. Ordezkaritza erlazioa denboraldiaren bukaeran itundu ahal izango da; erlazio hau idatziz formaldu beharko da, sartuta dauden klub desberdinetako Presidenteek sinatuz eta FVF-BFF, baita EFF-FVF eta RFEF-E.F.F.Era bidaliaz, beranduen jota eta efektuak izan ditzala hurrengo sasoiarako, Ekainaren 30a baino lehen. Salbuespen modura, aipaturiko epea 20 egunetan luzatu daiteke, ordezkaritza-harremana denboraldiaren azken astean ematen bada babestutako klubaren alde bateko borondatez.

3. Ordezkaritza egoerak akordioan espresuki finkatzen den iraupena izango du, eta bukatutzat emango da mugaegunean. Honengatik ez dira onartuko bere iraupena aipatzen ez duten akordioek, zeinak denboraldi osoak izango direlarik.

4. Nahiz eta denboraldiaren amaieran filialtasun atxikimendua erabaki, horrek ez du hurrengo denboraldian, taldeek izan zuten babesle eta filial jitearen ondoriozko lehiaketa ondorerik eragingo.

5. Ordezkaritza klubek ezin izango dute babes-emailearen izen berbera izan eta babes-emaileak kategoria edo maila bakoitzeko talde bakar bat eskuhartu ahal izango du.

6. Ordezkaritza klub bat ezin izango da beste baten/batzuen babes-emaile izan.

**18. ARTIKULUA Taldeen Egoera**

1. Ordezkaritza klub baten taldeen egoera txapelketan beti babes-emaile klub baten taldeei subordinatuta geldituko da, hau dela eta, talde bat bestearen mailara beheratu ezkero azken honen maila jaitsiera erakarriko du; gauza bera gertatuko da klubak edo behe mailako taldeak kirol emaitzengatik lortzen duenean goimailako taldeak galdutako mailarako igoera, behe-mailan dagoen ordezkaritza talde bat ezin izango da goi-mailako kategorian edo mailan integratu, bertan babes-emaile klubaren talde ordezkariren batek jokatzen baldin badu behintzat. Nahiz eta maila-igoera lortu, honen postua lortzeko eskubidea hobeto sailkatuta dagoen taldearentzat izango da.

2. Aurreko puntuan finkatutakoaren salbuespen gisa ondoko hau aipatu genezake:

ordezkaritza osotzen duten taldeak Lurralde desberdinetakoak baldin badira, talde bat bestearen mailara beheratu ezkero akordioa automatikoki bukatutzat emango da.

**19. ARTIKULUA Lege Maula**

1. Ordezkaritza erlazioa ezin izango da arautegiaren xedapenei ihes egiteko tresna gisa hartu, ez eta egoera konkretuaren edozein helburu desberdin bat lortzeko ere.

2. Izate honetako edozein noizik behinkako akordio, ordezkaritza erregulatzen duten xedapenen interpretazio maula gisa kontsideratuko dira, beraz, baliorik gabekoa.

**20. ARTIKULUA Klub Printzipal Eta Filialaren Arteko Binkulua**

Klub nagusi baten eta bere ordezkaritzakoekin arteko loturak, jokalarien zerrenda dela eta, ondorengo ondorioak erakarriko ditu:

a) Futbolariak, behin eta eskatutako adina bete eta gero eta inskribatuta dauden kluba baino maila goragokoa izanik, babes-emailearen katea osotzen duten edozein taldeetan zelairatu daitezke.

b) Egoera hau ematen denean, jokalaria bere jatorrizko klubera itzul daiteke, beti ere, txapelketaren hamar partidu baino gehiago, alternatiboki edo jarraian, jokatu ez balitu eta jokatutako denbora erreala kontutan izan gabe.

c) Lehen aipaturiko kontuetatik kanpo gelditzen dira “J”, “C”, “I” eta “AL” lizentziak dituzten jokalariek.

d) Ordezkaritza taldeetako jokalarien interbentzioa babes-emailearen lehenengo taldean izango balitz, jokalariek hogeitahiru urte baino gutxiago eduki beharko lituzkete.

e) Kanporaketa sistema erabiltzen den txapelketetan, zeinetan maila ezberdinetako taldeak parte har dezakete, soilik jokatu dezake klub nagusiaren lehenengoak, salbu txapelketa oinarriak arau hau aldatu ezkero.

**21. ARTIKULUA Mugak**

Araudi honetako 15 eta 20 artikuluak baimentzen duten aukera, non behe mailako taldeetan eto klub filialetan inskribatuta dauden jokalariak talde nagusian edo babeslean parte hartu dezakete, aukera hau indargabetu egingo da, jokalariak goiko taldean inskribatuta egon direnean eta baja emanda eta inskripzioa beheko taldean formaldu dutenean.

## IV. TITULUA

## PUBLIZITATEA

**22. ARTIKULUA Kirol Jantzietan Publizitatea**

1. Kluben eskudun organoek aldez aurretik horrela erabakitzen baldin badute, beraien futbolariek edozein motatako partiduetan kirol-jantzietan publizitatea erabil dezatela baimendurik daude.

2. Futbolariek erakuts dezaketen publizitatea merkatal markaren sinbolo edo ezaugarri bat bakarrik izan liteke eta, honen pean, doazkion hitz edo siglak.

3. Publizitateak ezingo die ideia politiko edo erlijiosoei aipamenik egin, ez eta Legeari, moralari, ohitura onei edo ordenu publikoaren kontrakoa izan. Ezingo dute edari alkoholikoen edo tabakoaren aipamenik egin, eta sekula ere ez, ezingo ditu klubaren koloreak edo ezaugarriak aldatu.

4. Kirol jantziaren fabrikatzailearen merkatal markaren ezaugarria, sinboloa eta legenda aurkeztea ez da publizitatea kontsideratuko, neurriak, guztira, ez baldin badira hamabost zentimetro karratu baino handiagoak.

5. Jokalarien kamisetetan agertzen diren kluben ezaugarri edo bereizgarriek ezin dezakete beraien izenaz aparte beste legendarik azaldu.

6. Halaber, arbitroek eta entrenatzaileek ere beraien kirol jantzietan lehen aipaturiko egoera berdinetan publizitatea ager dezakete, eskudun organoek erreglamentatu edo baimendurik.

# II. LIBURUA

# FUTBOLARIENAK

## I. TITULUA

## FUTBOLARIEN KIROL KALIFIKAZIOA

### 23. ARTIKULUA Kalifikazioa

1. Futbolariak beren futbol-jardueragatik jasotzen duten ordainsariaren arabera sailkatzen dira: profesionalak eta ez-profesionalak edo afizionatuak.

2. Futbol-jarduerаren ondoriozko gastuen konpentsazioa gainditzen duen ordainsaria jasotzen duten futbolariak profesionalak izango dira, eta «p» motako lizentzia izapidetu beharko dute, futbolaria inskribatzen den taldea zein kategoriatara atxikita dagoen alde batera utzita.

Horrelako inskripzioen eskaera futbolariaren kontratuaren kopia batekin eta Gizarte Segurantzan alta emanda egotearen kopiarekin aurkeztu beharko da.

Futbolaria profesional gisa lehen aldiz inskribatzen denean, lizentzia inskribatzeko eskaerarekin batera Erregelamendu Orokorraren 23 bis artikuluan xedatutakoa aurkeztu beharko da.

3. Futbolariek klub berari atxikita jarraitu ahal izango dute, maila aldatzen bada ere, baina haren indarraldian soilik.

4. Futbol-jardueratik eratorritako gastuak gainditzen ez dituen konpentsazio bat jasotzen duten futbolariak ez dira profesionalak izango, eta kirol-denboraldi bakoitzean duten adinaren arabera izapidetuko dute lizentzia:

### 23bis artikulua. Kluben eskubide ekonomikoak

1. Talde batek lizentzia profesionala duen futbolari bat lehen aldiz inskribatzen duenean, lizentzia hori lortzeko aldez aurreko baldintza gisa, indarrean dagoen araudiaren arabera dagokion zenbatekoa jarri beharko du BFF-FVFn, dagokion banaketaren arabera.

Kopuru hori proportzionalki banatuko da aurretik futbolaria atxikita egon den kluben artean, hau da, EFFEn edo bertan integratutako Autonomia Eremuko Federazioen barruan dauden kluben artean, salbu eta eskubide horri berariaz uko egiten bazaio. Kontzeptu horregatik, ez dira.

Profesional gisa inskribatzen duen kluba, bai eta haren filialak ere, salbu eta urtebetez gutxienez bati edo besteei atxikita egon bada.

Bat-egite baten ondorioz sortutako klubak edo beste bat xurgatzen duenak aipatutako eskubide ekonomikoak ordaintzeko eskatu ahal izango du, baldin eta futbolaria bat xurgatutako klubetako bati lotuta egon bada.

Areto Futbolaren espezialitatean, futbolariak gaztaroa amaitu zuen klubera arte egingo da banaketa, gaztaroa barne.

2. Goragoko kategoriako talde batean ondoz ondo inskribatuz gero, gordetako kopuruaren eta kategoria berriari dagokionaren arteko aldea ordaindu beharko du klub berriak.

3. Eskubide horiek erreklamatzeko epea 24 hilabetekoa izango da, futbolaria inskribatzen denetik zenbatzen hasita.

4. Kirol-arauetan eta/edo aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezar daitezkeen beste eskubide batzuen hartzekodun izango dira klubak.

**24. ARTIKULUA Aldiberekotasuna**

Futbolariek, aldi berean, futbol eta areto-futboleko jardueraren berezko beste lizentzia mota bat izan dezakete, baldin eta taldeko, zelaiko ordezkari, mediku, fisioterapeuta eta laguntzaile gisa jarduten badute, laguntzaile edo bigarren eta hirugarren erregionaleko eta gazte mailako eta beheragoko mailako taldeetako entrenatzaile eta teknikari gisa; kasu horretan, bi lizentziak aldi berean hartu ahal izango dituzte, baldin eta titulazio egokia badute eta jatorrizko klubak berariaz baimena eman badu. Lizentzia horrek izaera gehigarria izango du futbolariaren jarduerari dagokionez, eta haren lizentziak, nolanahi ere, lehenagokoa izan beharko du.

Era berean, BFF-FVFk, bere eskumenen esparruan, bere jokalarien lizentzia bikoiztea baimendu ahal izango du, bere lehiaketetan arbitro gisa jardun ahal izateko.

**25. ARTIKULUA Laguntzak**

Futbolariek nahitaezko kirol-aseguru baten prestazioak jasotzeko eskubidea dute, beti ere kuotak egunean baldin badituzte, baita Erantzukizun Zibil moetako aseguru bati ere.

**26.ARTIKULUA Lizentzia Aldiberekotasuna Eta Disziplina Ondorioak**

1. Entrenatzaile edo auxiliar bezala lizentzia duen jokalari bat, jokalari bezala zigortua bada suspentsioarekin edo lizentzia gabeziarekin partidu kopuru baterako, entrenatzaile edo auxiliar funtzioak beta ahal izango ditu, bai partidu ofizialetan edo lagunartekoetan, salbuespen batekin, santzioa infrakzio larri edo oso larri batengatik denean, kasu honetan inhabilitazioa edukiko du entrenatzaile edo auxiliar bezala baita ere, santzioa jaso duen partidu kopururako.

2. Entrenatzaile edo auxiliar bezala lizentzia duen jokalari bat, entrenatzaile edo

auxiliar bezala zigortua bada, santzioa infrakzio larri edo oso larri batengatik denean, kasu honetan inhabilitazioa edukiko du jokalari bezala baita ere, santzioa jaso duen partidu kopururako.

**27. ARTIKULUA Mutualitate Betebeharrak**

FVF-BFFaren menpeko edozein klubarekin entrenatu edo partidatan parte hartu ahal izateko, futbolariek Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean afiliatuta egon beharko dute, kuoten ordainketan egunean egon beharko dute, eta azterketa medikoa egin beharko dute. Azterketa horren ziurtagiri ofiziala edo irizpen medikoa, mutualitateak eginda, banakakoa izango da, eta horren emaitzek bi (2) urteko indarraldia izango dute.

## II TITULUA

## LIZENTZIAK

**28. ARTIKULUA Definizioa**

Federakor Lizentzia, pertsonal eta besteganatu ezina, bere jabeari dagokion Lurralde Federakundearen eta EFF-FVFko kide kondizioa ematen dion dokumentua da eta txapelketa desberdinetan parte hartzeko gaitzen du, beti ere txapelketen araudienpean dagokion klubari adskribatuta geldituri k.

**29. ARTIKULUA Sailkapena**

Lizentziak dagokion ereduan izapidetuko dira, federazio-formularioan, kirol-denboraldi bakoitzean duten adinaren arabera eta indarrean dagoen sistema informatikoaren bidez.

Futbolari ez-profesionalen lizentziak dira (h letran xedatutakoari kalterik egin gabe), modalitate nagusian honako hauek:

a) “A” edo “FA”: Afizionatuak edo Emakumezkoen Afizionatuak, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hogei urte betetzen dituztenak.

b)“J” edo “FJ”: Gazteak edo Emakumezkoen Gazteak, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamazazpi urte betetzen dituztenak eta hemeretzi urte betetzen dituzten denboraldiaren bukaera arte.

c)“C” edo “FC”: Kadeteak edo Emakumezkoen Kadeteak, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamabost urte betetzen dituztenak eta hamasei urte betetzen dituzten urte naturalaren Abenduak 31 arte.

d)“I” edo “FI”: Gaztetxo edo Emakumezkoen Gaztetxoak, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamahiru urte betetzen dituztenak eta hamalau urte betetzen dituzten urte naturalaren Abenduak 31 arte.

e)“AL” edo “FAL”: Ume edo Emakumezkoen Umeak, bidean dagoen sasoian Urtarrilaren 1etik aurrera hamaika urte betetzen dituztenak, hamabi betetzen dituzten urte naturaleko abenduaren 31ra arte.

f) “B” edo “FB”: Umetxoak eta Emakumeen Umetxoak, uneko denboraldiko urtarrilaren 1etik bederatzi urte betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte

hamar urte betetzen dituztenak.

g) «PB» eta «FPB»: Aurreumetxo eta Emakumeen Aurreumetxoak; aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik zazpi urte betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte zortzi urte betetzen dituztenak.

h) «PRF»: Emakumezko Profesionala.

Honako hauek dira profesionalak ez diren futbolarien lizentziak, areto-futbolaren espezialitatean, h) eta i) letretan xedatutakoari kalterik egin gabe:

a)"AS" edo "ASF": Afizionatuak edo Emakumezkoen Afizionatuak Areto Futbolean, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hogei urte betetzen dituztenak.

b)"JS" edo "JSF": Gazteak edo Emakumezkoen Gazteak Areto Futbolean, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamazazpi urte betetzen dituztenak eta hemeretzi urte betetzen dituzten denboraldiaren bukaera arte.

c)"CS" edo "CSF": Kadeteak edo Emakumezkoen Kadeteak Areto Futbolean, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamabost urte betetzen dituztenak eta hamasei urte betetzen dituzten urte naturalaren Abenduak 31 arte.

d)"IS" edo "ISF": Gaztetxo edo Emakumezkoen Gaztetxoak Areto Futbolean, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilak 1 eta gero hamahiru urte betetzen dituztenak eta hamalau urte betetzen dituzten urte naturalaren Abenduak 31 arte.

e)"SA" edo "SAF": Kimuak edo Emakumezkoen Kimuak Areto Futbolean, bidean dagoen denboraldiaren Urtarrilaren 1etik aurrera hamaika urte betetzen dituztenak, hamabi betetzen dituzten urte naturaleko abenduaren 31ra arte.

f) "BS" edo "BSF": Umetxo Aretoa edo Emakumezkoen Umetxo Aretoa, aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik hamarrak betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra bitartean bederatzi urte betetzen dituztenak.

g) «PS» eta «PSF»: Aurreumetxo Aretoa edo Emakumezkoen Aurreumetxo Aretoa, aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik zazpi urte betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte zortzi urte betetzen dituztenak.

h) "PFS" Areto-futboleko Profesionala.

i) "PRFS": Emakumezkoen areto-futbol Profesionala.

**Hondartza-futbolaren espezialitatean, futbolarien lizentziak dira, halaber, honako hauek:**

a) "AP" edo "APF": Hondartzako Afizionatuak edo Emakumezkoen Hondartza Afizionatuak, dagokion denboraldiko urtarrilaren 1etik aurrera hogei urte betetzen dituztenak.

b) "JP" edo "JPF": Hondartzako Gazteak edo Emakumezkoen Hondartza Gazteak, ebazpen honen xede den denboraldiko urtarrilaren 1etik aurrera hamazazpi urte betetzen dituztenak, 3 denboralditan.

c) "CP" edo "CPF": Hondartzako Kadeteak eta Emakumezkoen Hondartzako Kadeteak, aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik aurrera hamabost urte betetzen dituztenak eta

urte naturaleko abenduaren 31ra arte hamasei urte betetzen dituztenak.

d) “IP” edo “IPF”: Hondartzako Gaztetxoak eta Emakumezkoen Hondartzako Gaztetxoak. Aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik aurrera hamahiru urte betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte hamalau urte betetzen dituztenak.

e) «ALP» eta «ALPF»: Hondartzako Umeak eta Emakumezkoen Hondartzako Umeak. Aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik hamaika urte dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte hamabiak betetzen dituztenak.

f) “BP” edo “”BPF”: Hondartzako Umetxoak edo Emakumezkoen Hondartzako Umetxoak. Aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik hasi eta bederatzi urte betetzen dituztenak eta urte naturaleko abenduaren 31ra arte hamar urte betetzen dituztenak.

g) “PBP” eta “PBPF”: Hondartzako Aurreumetxoak edo Emakumezkoen Hondartzako Aurreumetxoak.Aurtengo denboraldiko urtarrilaren 1etik zazpi urte betetzen dituztenak eta zortzi urte betetzen dituzten urte naturaleko abenduaren 31ra arte.

h) “PFP”: Hondartzako Futboleko Profesionala.

i) “PRFP”: Emakumezkoen Hondartza Futboleko Profesionala.

j) EFFEk finkatutako/ezarritako beste edozein lizentzia.

**30. ARTIKULUA Eredua**

Lizentziak eredu ofizialean formalizatuko dira, ezarritako sistemaren bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira nahitaez.

**31. ARTIKULUA Edukia**

1.Lizentziaren agirian argi jasoko dira honako kontzeptu ekonomiko hauek:

a) Nahitaezko aseguruen kuota: titularraren osasun arriskuak estaltzen dituen osasun laguntzako aseguruaren, erantzukizun zibileko aseguruaren eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte ordainen aseguruaren kuota, hain zuzen.

b) FVF-EFFaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

c) Lurraldeko kirol federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

d) Federazioen eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.

2. Lizentziaren agirian,halaber, argi jasoko dira honako eduki hauek:

a) Lizentzia ematen duen federazioa.

b) Lizentziaren iraupena.

c) Jokalariaren Izena, abizenak, nortasuna, toki eta jaioteguna Kirol Federazio igorlea.

d) Kirol disziplina.

e) Inskribatu nahi den klubaren izena eta identifikazio zenbakia, sartu behar den taldearen izena zehaztuz.

f) Inskribatuta zegoen azken klubaren izena.
g) Eskatzailearen eguna eta sinadura.

h) Klubeko idazkariaren sinadura eta zigilua.

i) Lizentzia ematen duen federazioko lehendakariaren sinadura, edo hark berariaz eskuordetutako pertsonarena.

j) EFF-FVFak zehazten duen beste edozein inguramen.

Atzealdean, behar bezala bete behar da kasu bakoitzari dagokion guztia.

3. Lizentzia eskaeran jarri behar diren datuen egitasun falta, Diziplina Arautegiak zehazten duen bezela zigortuak izango dira.

**32. ARTIKULUA Lehen Lizentzia**

1.Lizentzia eskaera lehenengo aldiz egiten denean, futbolariaren N.A.N.ren fotokopia bat atxekitu beharko da; futbolariak adingabekoak baldin badira, N.A.N.z gain, bestela ezinean, jaiotze ziurtagiri ofiziala, aitak, amak edo tutoreak libratutako baimena ere atxekitu beharko da.

2.Bere kirol bizitzan, futbolariek eduki ahal dituen hurrengo lizentzien edozein federazio tramiterako, NAN-ren fotokopia irakurgarria exigituko da.

**33. ARTIKULUA Mediku Miaketa**

1. Lehenengon lizentzia eskaera harpidetu baino lehen, futbolariak, eskudun federakor organoak zehazten duen mediku miaketa egin beharko du, beti ere jokalariak edozein txapelketa edo entrenamendutan parte hartu baino lehen.

2. Betebeharrenbat ez-betetzeak ez du, inola ere ez, eskaera egiterakoan hartutako betebeharretatik baztertuko.

**34. ARTIKULUA Lizentzia Eskaera (Kompromiso-orria)**

1. Lizentzia Eskaerak behar bezala beteta daudenean, edo indarrean dagoen sistema informatikoan behar bezala inskribatuta daudenean, klubek BFF-FVFn aurkeztuko dituzte, dagokion dokumentazioa erantsita edo digitalizatuta, eta dagozkion eskubideak eta nahitaezko kirol-aseguruaren kuota ordainduta.

Lizentzia berriztapena denean, aipatutako eskubideak entitareari lotuak jarraitzen duten jokalarien zerrendak edo erlazioak aurkeztean ordainduko dira.

2. Lizentzia Eskaerak sinatuak izan diren eguna baino hamabost egun beranduago aurkezten baldin badira, baliotasun guztia galduko dute eta ez dira onartuak izango.

**35. ARTIKULUA Izapidetza**

Eskaerak behar den moduan formaldu direla frogatu eta gero, BFF-FVFk lizentziak izapidetuko ditu eta EFF-FVF-ra datu informatikoak luzatuko ditu eta aurkezpenetik

hamabost eguneko epean.

**36. ARTIKULUA Guztiz Osatu Bako Eskaerak**

1. Ez da guztiz bete gabe, gaizki beteta, zuzenduta edo beste edozein falta duen lizentzia eskaerarik onartuko, ez eta eskalearen identitatea zein den dudan jartzen dituzten argazkiak dituztenak ere. Horretarako ezarritako neurria (NAN ), kolorez eta eguneratua.

2. Akats hauek dituzten eskaerak bueltatzen direnean klubak akatsik gabeko berri bat bete dezan, aurkitutako akatsak zeintzuk diren espreski azalduko zaizkio.

**37. ARTIKULUA Behin Behineko Lizentzia**

Futbolariaren behin behineko lizentzia, klub baten alde inskripzioa baieztatzen duen dokumentua da.

**38. ARTIKULUA Akordio Iraupena**

Lizentziek, futbolariak klub-arekin duen akordioaren iraupen berbera izango dute, indarrean dagoen arautegian azaltzen den edozein iraungipen zergati gertatu izan ezik.

**39. ARTIKULUA Erantzunkizuna**

1. Klubei dagokie lizentzia eskaerak behar den moduan ez aurkeztearen ondorioz gerta daitezkeen ondorioen erantzukizun osoa.

2. Egin beharreko aldaketak egin eta gero, noizik behinkako akatsdun lizentzia baten baliokidetzak azken honi baliotasun osoa ematen dio, jatorrizkoaren espedizioaren egunetik hasita.

3. Lizentzia baten espedizioak ez du inoiz futbolari baten inskripzioa baliokidetzen eskaerak ez-baliotasun falta baldin badu, ez-baliotasun falta gisa Liburu honen 31 artikuluan agertzen diren datuen faltsukeria ulertzen baldin badugu.

## III. TITULUA

## LIZENTZIEN ESKAERA EPEA

**40. ARTIKULUA Eskaera Epea**

1.Klubek jokalarien lizentzien eskaera eta lorketa denboraldian zehar egin dezakete, baina inoiz ihardunaldiaren berrogeitazortzi ordu baino lehenago, epealdia bidean dagoen denboraldiaren Uztailak 1etik Maiatzak 15 bitartean izanik.

2. Inskripzioa edo federakunde baimena, bere kasuan, partidua ospatu baino berrogeita zortzi ordu lehenago egin izana.

3. BFF-FVFak ezin izango ditu Liga Nazional de Futbol Profesional, 1ª EFFE, 2ª EFFE, 3ª EFFE eta estatuko gainerako kategoriei (futbolari, areto-futbolari eta hondartza-futbolari) atxikitako kluben alde, eurek ezarritako inskripzio epeetatik kanpo, Liga-ren edo EFFE-RFEFren, hurrenez hurren, aldeko txostena egin beharko dute Araudi Orokorrak ezartzen duen futbolari-kupoa errespeta dadin.

## IV. TITULUA

## LIZENTZIEN ERAGINA

### 41. ARTIKULUA Lehen Lizentzia

Futbolari baten lehengo lizentzia berak nahi duen klubaren izenean egingo zaio; hurrengoak berriz, Liburu honetan agertzen diren xedapenekin bat egingo dira.

### 42. ARTIKULUA Fusio edo Absorzioa

1. Bi kluben fusioa ematen baldin bada, afizionatu, gazte edo maila beheragoko eta era berean, areto futbol eta emakumezko futbol lizentzia duten eta, talde horietan inskribatuta dauden futbolariek, fusioaren ondorioz sortzen den klub horretan jarraitzeko ala ez jarraitzeko askatasun osoa izango dute. Aukera hau erabiltzeko, FVF-BFFn erregistratzen den egunetik hasita zortzi eguneko epea izango dute. Epe horretan, FVF-BFFri idatziz bidalitako gutun baten bidez, klub-ez aldatzeko nahia adierazten ez dutenek, klub berriari adskribatuta geldituko dira, hau dela eta, lizentzia azken honen izenean formaldu beharko dute, interesatuaren lehengo taldearen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuz.

2. Lehen aipatutakoak eraginkortasun osoz aurrera egin dedin, fusioan interesatuta dauden klub guztiek beraien futbolariei, gutun egiaztatuaren bitartez eta gutxienez FVF-BFFri fusioaren berri emateko data baino zortzi eguneko aurre-epearekin, aurreko atalaren textuaren berri emango diete. Betebehar honen ezbetzeak ez du jokalariaren aukerabide eskubidea ahulduko.

### 43. ARTIKULUA Jokalarien Betebeharrak

1. Klub baten lizentzia duten jokalariek ezingo dute beste kluben taldeetan ez lerrokatu, ez entrenatzea ez aktan agertzea, Arautegi honetan eta legezko xedapenetan zehazten dena izan ezik.

2. Klubek ezin izango dute ezein bidez federaturik dauden jokalariak beren plantiletrako hartzeko deialdirik egin urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen, ez eta deituriko jokalariek bertara joan ere, bere klubaren baimena, idatziz, lor dezatenik ezean.

3. Xedapen honen ez-betetzearen erantzule inplikatutako kluba eta jokalaria izango dira eta Disziplina Arautegiko 74 artikuluan aurreikusitako zigorrak ezarriko zaizkie.

### 44. ARTIKULUA Lizentzien Bikoiztasuna

Denboraldi berean jokalari batek klubez aldatzeko aurrikusita dauden arauzko ustezkoetatik kanpo beste baten alde lizentzia formaldu ezkero, bikoizketan eroriko da, eta arazoa taldea erantzunkizunetan erori gabe lehenengo erregistratu denaren alde konponduko da; prioritate hau ezingo balitz erabaki, eta jokalaria klub batek inskribatuta edukiko balu, eskubidea honen alde izango litzateke. Hala ere, eskudun justizia federakor organoak erabakitzen duena onartuko da.

### 45. ARTIKULUA Lizentzia Bikoizketa Disziplina Ezberdinetan

1. Futbolariek bi lizentzia eduki ahal izango dituzte futbolean, areto-futbolean eta hondartza-futbolean, nahiz eta lizentzia mota bakoitzak lizentzia bakoitzaren berezko betebeharrak bere gain hartuko dituen.

2. Lizentzia horiek dituzten futbolariek lizentzia horiei dagozkien partidetan baino ezin izango dute esku hartu, baldin eta egun desberdinetan jokatzen badira.

**46. ARTIKULUA Jokalariearen Betebeharrak**

Futbolari afizionatu batek, lizentzia klub baten alde izenpetzen duenean, azken honek espreski horrela eskatzen dion bakoitzean, federakor erakundeak kontrolatutako partidu guztietan parte hartzera behartuta dago, baita klubak finkatutako entrenamendu guztietan, bere lanbidearen ordutegiarekin bateragarri denean behintzat parte hartzera ere.

**47. ARTIKULUA "A"/"FA"/"AS"/"ASF"/"AP"/"APF" Lizentzia Mota**

Futbolari afizionatuek "A"/"FA"/"AS"/"ASF"/"AP"/"APF" moetako lizentzia eska dezakete adina mugapenik gabe.

Hamar mila biztanle baino gutxiago dituzten herrialdeetan, afizionatu txapelketetan gehienez lau jokalari gazteen agerraldia baimentzen da, beste lau kadete gazte txapelketetan, lau haur kadete txapelketetan, lau alebin haur txapelketan, baldin eta klubak beheko mailan talderik ez badu, betiere maila horiek txapelketa federatuen bidez araututa badaude.

Muga hori, baita aurreko pasartean aipatzen den jokalari kopuruaren inskripzio baimenari dagokionez ere, BFF-FVFaren Zuzendaritza Batzordeak alda dezake herrialdearen ezaugarriak direla eta.

Artikulu honi dagokionez, zentsu gisa nukleoaren biztanle ofizialen kopurua ulertuko da.

Areto Futbolean, dena delako populazio-errolda edozein dela ere, baimena ematen da afizionatu mailako lehiaketetan lau futbolari gazte inskribatzeko eta jarduteko, lau kadete jubeniletan, lau haur kadeteetan, betiere kasuan kasuko klubak beheko mailan talderik ez badu.
Muga hori, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen den futbolari-kopurua inskribatzeko baimena ere, BFF-FVFak aldatu ahal izango du.

**48. ARTIKULUA Lizentzien Indargabetzea**

1. Klubek indarrean dagoen sistema informatikoaren bitartez izapidetuko dituzte federatun bajak.

2. Jokalari afizionatuen bajak hiru aletan luzatu beharko da, klubaren paper ofizialean, azken honen zenbaki eta sigiluarekin, interesatuaren N.A.N.aren zenbakiarekin, data eta entitatearen Presidentearen edo Idazkariaren sinadurarekin. Ale bat FVF-BFFri emango zaio lizentziarekin batera, beste bat klubaren eskuetan geldituko da eta azkeneko alea jokalariak gordeko du. Bajak FVF-BFFri komunikatuko zaizkio, sinadura jarri eta hurrengo zazpi egunen barne, baliozkotasuna epe hau iragan eta gero erabat galduaz.

3. Baja ezingo da, inola ere ez, inolako baldintzari lotuta egon eta ezarriko balitz, ezezarritzat joko da.

4. Klubak zirkunstantzialki Gestio Batzorde batek zuzenduko balu, azken hau jokalariei bajak emateko fakultatearen jabe izango da.

5. Jokalari batek baja lortzen duenean, baja hori eman dion klubak, jokalariari, izanik, betetzeko dauzkan zorren berri ematen duen federakor agiri bat ematera behartuta dago.

**49. ARTIKULUA "A"/"FA"/"AS"/"ASF"/"AP"/"APF" Lizentzia Motaren Efektuak**

1. "A"/"FA"/"AS"/"ASF"/"AP"/"APF" moetako lizentzia duten jokalariek beraien klub-ari denboraldi batez lotuta geldituko dira, elkarren arteko akordioz,bi edo hiru denboralditara luzatu egiten duen akordio bat dela medio izan ezik. Akordioaren iraupena lizentziak horretarako duen laukian agertuko da, eta bera, BFF-FVFan aurkeztu, edo horretarako sortu den inprimakian aurkeztuko da.

2. Moeta honetako akordioak aurrera eramaten direla suposatuaz, epearen bukaera iristen denean, klubek emandako baja baten baliokidetasun berbera eta honek izaten dituen efektu berberak izango ditu, Araudi honen 48 artikuluan agertzen diren betebeharrak betetzeko beharrik izan gabe.

3. Klubeko edozein taldetan lerrokatu ahal izango dira, erregelamendu bidez baldintzatuta egon ezean.

**50. ARTIKULUA Lizentzia Berriztapena**

1. Klubak jokalarioen berriztapenak indarrean dagoen sistema informatikoaren bitartez zuzenean egingo dituzte, Abuztuak 20 baino lehen.

2. Edozein moduan, klubek jokalariei, indibidualki, artikulu honek ukitzen dituen puntuei buruzko beraien erabakia zein den aditzera eman beharko die, eta bertan finkatzen diren epeen barnean.

**51. ARTIKULUA "J"/"FJ"/"JS"/"JSF"/"JP"/"JPF" Lizentzia Motaren Efektuak**

1. J"/"FJ"/"JS"/"JSF"/"JP" eta "JPF" lizentzia moeta duten jokalariek, inskribatzen diren klubaren barnean lizentzia iraungitu harte bertan egotea konprometitzen dira; aipatutako iraungipen hau denboraldiaren bukaeran emango da, baja edo iraupena bi edo hiru denboraldira luzatzen duen bi alderdien arteko akordio izenpetua lortu izan ezik.

Konpromisoaren iraupena jaso beharko da BFF-FVFn aurkeztuko den lizentzia eskaeran edo EFF-FVFk ezarritako sistema informatikoan digitalizatuko den lizentzia-eskaeran.

**52. ARTIKULUA "C"/"FC"/"CS"CSF"/"CP"/"CPF" Lizentzia Motaren Efektuak**

"C"/"FC"/"CS"/"CSF"/"CP"/"CPF" lizentzia duten jokalarien konpromisoa denboraldi bakoitzaren amaieran iraungiko da, baita beren lizentziakoaren azkena ere, eta libre geratuko dira, beraz, Euskal Federazioko edozein talderi atxikitzeko.

**53. ARTIKULUA "I"/"FI"/"IS"/"FIS"/"IP"/"IPF" Lizentzia Motaren Efektuak**

"I"/"FI"/"IS"/"FIS"/"IP"/"IPF" lizentzia duten jokalarien konpromisoa denboraldi bakoitzaren amaieran iraungiko da, baita beren lizentziakoaren azkena ere, eta libre

geratuko dira, beraz, edozein talderi atxikitzeko.

**54. ARTIKULUA "AL"/"FAL"/"ALS"/"ALSF"/"ALP"/"ALPF" Lizentzia Motaren Efektuak**

"AL""/"FAL"/"ALS"/"ALSF/"ALP"/"ALPF" lizentzia duten jokalarien konpromisoa denboraldi bakoitzaren amaieran iraungiko da, baita beren lizentziakoaren azkena ere, eta libre geratuko dira, beraz, edozein talderi atxikitzeko.

**54. BIS ARTIKULUA "B"/"BI"/"BS"/"BSF"/"BP"/"BPF" Lizentzia Motaren Efektuak**

"B"/"BI"/"BS"/"BSF"/"BP"/"BPF" lizentzia duten jokalarien konpromisoa denboraldi bakoitzaren amaieran iraungiko da, baita beren lizentziakoaren azkena ere, eta libre geratuko dira, beraz, edozein talderi atxikitzeko.

**55. ARTIKULUA Jokalarien Berriztapena**

1. Klubek futbol jokalariak eraberritzeko dituzten eskubideak, Liburu honek aurrikusten dituen kasu berezietan, ahulduta geldituko dira jokalari hauek aurreko denboraldian gutxienez bost partidu ofizialetan zelairatuta izango ez balira, horietako bi partidutan baino gehiagotan gutxienez partidu osoa jokatuz, lesio, gaixotasun edo ezintasun fisikoren batek horrela izan zedila utzi izan ez izan balu ezik.

2. Ezeztapen kausa honen konkurrentziak klubaren eta jokalariaren edo bere lege errepresentatzaileen arteko loturak efektu aproposa izan dezan, azken honek FVF-BFFri formalki inbokatu beharko dio denboraldiaren Uztailak 30 baino lehen.

**55 BIS ARTIKULUA – Aplicatu beharreko araudia Lizentzia Profesional eta Futbolari profesionalen birkalifikazioa**

1.- Baimena duten futbolarien "P" kontratu-araubidea indarrean dagoen legeriak eta, hala badagokio, formalizatzen diren hitzarmen kolektiboek arautuko dute.

2.- Aipatutako xedapenak alde batera utzita eta horien aurka egiten ez duten heinean, EFFEren Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

3.- Konpromisorik gabe dauden futbolari profesionalak, eskatzen duten guztietan, ez-profesional gisa kalifikatu ahal izango dira, eta izaera hori berreskuratu ahal izango dute. Hala ere, profesional gisa inskribatutako futbolari batek ezin izango du ez-profesional gisa jardun, harik eta bere azken partida jokatu eta gutxienez hogeita hamar egun igaro arte. Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du eragotziko FIFAren Estatutuari eta Jokalarien Transferentziari buruzko Erregelamenduak ezarritakoa, baldin eta elkarte nazionalen artean egiten badira.

4.- Birkalifikazioa aldez aurretik espedientea eginda erabakiko da, eta izapide hauek bete beharko ditu:

1. Futbolariak denboraldiko edozein hilabetetan eskatu ahal izango du, bai bere azken kluba inskribatuta dagoen autonomia-erkidegoko federazioaren bidez, bai inskripzio berriko federazioaren bidez. Federazio horrek EFFEi egin beharko dio eskaera.
2. EFFEk izango du birkalifikazioa baimentzeko eskumena, eta kasuan kasuko

futbolariak baimena eman ondoren eman ahal izango du izena, profesional gisa, baina denboraldi berean ezin izango du lanbide-lizentziarik lortu, klubak baja eman ez badio behintzat.

**56. ARTIKULUA Espainiar Nazionalitatea Ez Duten Jokalariak**

1. FVF-BFFren eskuduntzaren alorrean, komunitateko atzerriko futbol jokalariak inongo mugarik gabe inskriba daitezke, eta dagokion dokumentu ofizialaren bidez soilik baieztatu behar izango dute beren identitatea.

2. Ez komunitarioak diren atzerriko futbol jokalariak inongo mugarik gabe inskriba daitezke, egun dauden eta baita aldi baterako sortu daitezkeen edozein maila eta kategorietan, beti ere euren administrazio auzotartasuna Euskal Autonomi Erkidegoan kreditatu ezkero.

3. Aurreko puntuek ezartzen dituzten erregimenetan integratzen diren jokalariak, antolakuntza federatiboan erregimen orokorretik inskribatzen direnen eskubide eta betebehar, eta arautegi berdinaren menpean egongo dira.

4. Europar Batasunaren barnean jaio ez diren espainiar eta komunitateko jokalari guztiek, estatu mailako txapelketetan inskribatzeko RFEF-E.F.F.E-ren baimena behar dute, eguneratua dagoen NAN, pasaporte edo NIE-ren kopia aurkezteko beharrarekin.

5. beste Elkarte batena inskribatuta egon diren atzerriko jokalariak, RFEF-E.F.F.E aurrean "Nazioarteko Transferentzia Agiria" eskatu beharko dute, euren harremana finkatuko duten kluba espresuki adieraziz, euren filiazioa, nazionalitate eta egoitza baimenaren dokumentazioa aurkeztuz, honez gain espainian egotearen arrazoiak. Eskaerak beti izaera indibiduala izango dute.

6. Inoiz inskribatu ez diren jokalariek ez dute " Nazioarteko Transferentzi Agiri-rik" behar. Kanpotik datozen jokalari guztiek RFEF-E.F.F.E baimena behar du.
Jokalariaren betebeharra izango da, dagokion dokumentazioa aurkeztea, eta hau adierazpen notarial edo dagokion lurraldeko federazioaren Idazkari Nagusiaren aurrean, zeinetan beste FIFA-ko beste elkarte baten parterik ez duzula hartu , eta jokalariaren pasaportearen benekotasun kopia bat.

## V. TITULUA

## ARETO FUTBOLEKO JOKALARIEN LIZENTZIAK

**57.ARTIKULUA Lizentzia kopurua**

1.Klubak gehienez hamabost lizentzia eduki ditzakete maila ezberdinetan dauden talde bakoitzarengatik, denboraldian zehar bajak eta altak konpentsatu daitezke, hogeitabosteko limiterarte, erreglamendu eta arauak esaten dutenari kasu eginez.

Kasu berezietan, Zuzendaritza Batzak beheragoko mailetako taldeetan lizentzien kopurua handitzea baimendu dezake.

2.Klub txapelketaren hasieratik eta irauten duen bitartean, inskribatuta gutxienez 6 jokalari eduki beharko dituzte.

## VI. TITULUA

## TEKNIKARIAK ETA BERAIEN LIZENTZIAK

### 58.ARTIKULUA Entrenatzaileen Inskripzioa

1. Entrenatzaile baten inskripzioa da klub batekin duen lotura, harreman eta lotura hori adostasunez ezartzen duen konpromiso edo kontratu bat formalizatuz, kasuaren arabera.

2. Entrenatzaileen lizentziak FVF-BFFk ezarritako formulario ofizialaren bitartez formalduko dira, interesatuak, bertan eskatzen diren datu eta dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko ditu: dagokion diploma/titulua, gaitasun-ziurtagiri medikoa, nahitaezko kirol-aseguruan alta emanda egotea eta, hala badagokio, Entrenatzaileen Batzordeko afiliazio-bisatua.

3. Entrenatzailearen behin betiko lizentzia EFF-FVFk emandako agiria da, inskribatuta dagoen taldeak bere karguari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitzen duena, eta BFF-FVF, EFF-FVF eta EFFE, FIFA eta UEFAren estatutuak, erregelamenduak eta gainerako xedapenak onartzea dakar.

### 58 Bis ARTIKULUA Praktiketako entrenatzaileen inskripzioa

1. Praktiketako entrenatzaile baten inskripziotzat hartzen da BFF-FVFko entrenatzaileen eskolan inskribatuta dagoen ikaslea, aldi berean, eskolak ezarritako ikasgaien ikasketa teorikoak eta ikastaroa amaitzeari dagokion titulua lortzeko eskatzen diren praktikak egiten ari dena. Horretarako, tutore bat izan beharko du, jarduneko entrenatzaile titularra, hau da, entrenatzaile-praktikak egiten ari den denboraldian futbol-klub batekin kontratua indarrean duena.

Praktika horiek egiteko konpromisoak entrenatzaile-eskolaren, futbol-klubaren, entrenatzaile titularraren eta ikaslearen beraren baimena izan beharko du. Azken ikasle horrek egingo ditu praktika horien tutore-lanak, eta klub bati lotuta egongo da. Horretarako, konpromisoa edo kontratua formalizatuko du, kasuaren arabera, eta harreman eta lotura hori adostuko du.

2. Praktiketako entrenatzaileen inskripzioa EFF-FVFk ezarritako formulario ofizialaren bidez formalizatuko da, eta interesdunak, bertan eskatzen diren datu eta dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko ditu: entrenatzaile Eskolaren ziurtagiria, gaitasun-ziurtagiri medikoa, nahitaezko kirol-aseguruan alta emanda egotea.

### 59. ARTIKULUA Entrenatzaile Lizentzia Motak

1.Modalitate nagusian entrenatzaile lizentziak hurrengoak dira:

a) "ET": Entrenatzaile Titularra. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Futbola eta Futbola Emakumezkoen.

b) "EA": Entrenatzaile Laguntzailea. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion

kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola.

c) ""EP": Atezainen Espezialista. Futbol-atezainen espezialista izateko ikastaroaren eredu ofiziala eta diploma, dagokion erakundeak egin eta emandakoa, eta Kirol-teknikariaren, Oinarrizko Futboleko Instruktorearen edo I. Mailako lehen ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.

2. Areto Futboleko espezialitatean entrenatzaile lizentziak hurrengoak dira:

a) "EST": Areto-entrenatzaile Titularra. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Areto-futbola eta emakumeen areto-futbola.

b) "ESA": Areto-entrenatzaile Laguntzailea. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Areto-futbola eta emakumeen areto-futbola.

c) "EPS": Aretoko atezainen espezialista. Futbol-atezainen espezialista izateko ikastaroaren eredu ofiziala eta diploma, dagokion erakundeak egin eta emandakoa, eta Kirol-teknikariaren, Oinarrizko Futboleko Instruktorearen edo I. Mailako lehen ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.

3. Hondartzako Futbolaren espezialitatean, entrenatzaileen lizentziak honako hauek dira:

a) "ETPL": Hondartzako Entrenatzaile Titularra. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

b) "EAPL": Hondartzako Entrenatzaile Laguntzailea. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta dagokion kategoriarekin bat datorren diploma edo titulazioa. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

**60. ARTIKULUA Entrenatzaileen Kategoriak**

Entrenatzaileen kategoriak dira:

a) Profesionala: Futbol, Areto Futbol edo Hondartza Futboleko Entrenatzaile Diploma Profesionala dutenek osatuko dute.

b) Aurreratua: Futbol, Areto Futbol edo Hondartza Futboleko Entrenatzaile Diploma Aurreratua dutenek osatuko dute.

c) Oinarrizkoa: Futboleko, Areto Futboleko edo Hondartza Futboleko Entrenatzailearen Oinarrizko Diploma dutenek osatuko dute.

d) UEFA "C", "B", "A" eta "PRO" diploma/lizentziak dituzten entrenatzaileak eta UEFAko diplomak/lizentziak dituzten entrenatzaileak eta, hala badagokio, dauden hitzarmenen arabera ezartzen direnak.

e) Futboleko monitorea (NAZIONALA "C"), Areto-futbola edo Hondartza-futbola: Futbol, Areto Futbol edo Hondartza Futboleko Monitorearen Diploma dutenek osatuko dute.
.

f) Futboleko, Areto-futboleko edo Hondartza-futboleko kirol-teknikariak eta goi-mailako kirol-teknikariak, araubide bereziko irakaskuntza ofizialetatik datozenak.

**61. ARTIKULUA Entrenatzaileen Eskumenak**

1. Entrenatzailearen Diploma Profesionalak/ UEFA PRO/ NAZIONALA PRO lizentziak Futbol edo Areto Futboleko edozein talde federatu eta selekzio entrenatzeko ahalmena ematen du.

2. Entrenatzailearen Diploma Aurreratuak/ UEFA A/ NAZIONALA A lizentziak autonomia-erkidegoko, Futboleko edo Areto-futboleko taldeak eta selekzioak entrenatzeko ahalmena ematen du.

3. Entrenatzailearen Oinarrizko Diplomak/ UEFA B/ NACIONAL B lizentziak ahalmena ematen du futboleko lurralde-eremuko gazte eta behe mailetako taldeak eta Areto-futboleko gainerako kategoriak entrenatzeko.

Hondartzako Futbolaren espezialitatean, dagokion Batzordeak zehaztuko du maila bakoitzaren ahalmena, hondartzako futbolarekiko hartu behar den espezifikotasunarekin.

4. Futboleko edo areto-futboleko monitorearen diplomak ahalmena ematen du areto futboleko alebin eta kadete eta benjamin kategorietan edo, bere garaian, estatu mailako lehiaketak egon zitezkeen oinarrizko futboleko kategorietan eta autonomia-erkidegoko lehiaketa ofizialetan entrenatzeko, dagokion federazioak zehaztutako kategorietan.

5. Praktiketako entrenatzailea. Profesionalak ez diren lehiaketa ofizialetan ofizialki akreditatutako entrenatzailearekin lan egiten du, taldeak zuzentzeko eta entrenatzeko. Bere ikaskuntza-zereginetan, praktikak egiten dituen lehiaketaren kategoriaren arabera tituludun entrenatzaile batek lagunduta egon beharko du beti.

6. Praktiketako entrenatzaile tutorea. Indarrean dagoen lizentzia duen eta jardunean dagoen entrenatzaile tituluduna da, eta entrenamenduetan eta lehiaketa ez-profesionaleko partida ofizialetan ikuskatu eta babesten ditu EFFE-ek aitortutako entrenatzaileen titulu eta diplometara bideratutako ikasketa-planetan aurreikusitako praktikak, baldin eta horiek edo beren zentroek borondatez eta autonomiaz erabakitzen badute praktikak futboleko lehiaketa ez-profesionalaren testuinguruan egitea.

Praktiketako Tutore Entrenatzaileak UEFA C baino goi-mailako titulazioa izan beharko du, praktiketako entrenatzaileak UEFA C lortu nahi badu.

Gainerako titulazioetan, praktiketako tutoreak tutore jardun ahal izango du, baldin eta gutxienez praktiketako entrenatzaileak lortu nahi duen titulazioa badu.

**62. ARTIKULUA Aktibitatea Aurrera Eramateko Baldintzak**

a) Dagokion lizentzia lortzea, formulario ofizialaren bidez, partiduak entrenatzeko eta bere taldea zuzentzeko ahalmena emango diona, eta hark emango du, "ET", "EA" edo "EST", “ESA” izenpean, dagokion entrenatzaileen batzordeak txostena egin ondoren.

b) Batzordeak federazio-kontratuaren a) eta b) atalen kuota finkoa ordaindu beharko du

edo ordainsari guztien % 3a, kuota hori handiagoa denean, dagokion lizentzia izapidetzeagatik/ikus-onesteagatik.

2. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako prestatzaile fisikoek, lizentziadunek edo graduatuek, eta eskumena duen erakundeak emandako Futboleko Atezainen Espezialista Ikastaroko diplomadunek, eta dagokionean zehaztu daitezkeenek, entrenatzaileei buruzko araudiak ezartzen dituen baldintza berberak bete beharko dituzte eta "PF" edo “EP” izeneko lizentzia izenpetu ahal izango dute.

**63. ARTIKULUA Entrenatzailearen Kontratua**

Entrenatzaileak eta Klubaren legezko ordezkariek sinatutako kontratua aplikazio informatiko baten bidez aurkeztuko da BFF-FVFn.

Kontratuarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Lizentzia argazkiarekin.
- Medikuaren ziurtagiria, kirola egiteko gaitasuna adierazten duena.
- Sexu-izaerako delituen ziurtagiri negatiboa.
- Lizentziaren tramitazioa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Entrenatzaileen Batzordeko kide egin izanaren egiaztagiria.
- Egiten den kategoriarako eskatzen den titulua.

**64. ARTIKULUA Entrenatzaile Kontratuaren Edukia**

Kontratuak, gutxienez, ondorengo datuak azaldu beharko ditu:

a) Parte hartzaileen izenak, ardura, lekua, data eta klubaren zigilua.

b) Entrenatzailearen kualitatea - profesionala edo afizionatua eta titulazio mota.

c) Taldearen kategoria.

d) Bete beharreko eginkizun eta erresponsabilitateak.

e) Baldintza ekonomikoak.

f) Iraunaldia.

**65. ARTIKULUA Entrenatzaileen Kontratazioa**

1. Taldeentzat nahitaezkoa izango da kategoriari dagokion diploma edo titulua duen entrenatzaile bat izatea.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, entrenatzaileak bere taldeak edozein lehiaketatan jokatzen dituen partidetan egon beharko du, hala agertuko da dagokion aktan eta aulkian eseriko da partidan zehar.

2. Klubek, gainera, entrenatzaile laguntzaile bat edo gehiago kontratatu ahal izango dituzte, baldin eta entrenatzaile horiek kasuan kasuko taldearen kategoriari dagokion titulazioaren berdina edo txikiagoa izan behar badute, gutxienez entrenatzailearen oinarrizko diploma (UEFA C) izan beharko dute eta "EA" edo "ESA" lizentzia bideratu beharko dute.

Ez da entrenatzaile laguntzailearen lizentziarik izapidetuko talde horrek ez badu entrenatzaile titularrik inskribatuta.

## 66. ARTIKULUA Bakanteak

1.Txapelketa hasi eta gero entrenatzaile titularren postua hutsik geldituko balitz, klubak, bi aste baino lehen, taldea militatzen duen kategorirako behar den bezala titulatuta dagoen beste entrenatzaile bat kontratatu beharko du.

2. Aurreko parrafoak ezarritakoa ez egiteak, federazioko organu disziplinarioek, neurri disziplinarioak hartzea eragingo du.

## 67. ARTIKULUA Federakunde Baja

Klub baten eta entrenatzaile titular, entrenatzaile laguntzaile, atezainen espezialista edo prestatzaile fisiko baten arteko harremana hausten bada, arrazoia edozein dela ere, azken horiek beste talde batean jardun ahal izango dute, behin bakarrik, denboraldi berean, entrenatzaile, zuzendari, ordezkari, teknikari edo jokalari gisa, baina betiere izena eman nahi duen kluba aurreko denboraldiko dibisio berekoa ez bada.

## 68. ARTIKULUA Kontratuen Betetzearen Bermea

1. Klubari ez zaio entrenatzaile titularraren, entrenatzaile laguntzailearen, atezainen espezialistaren edo prestatzaile fisikoaren lizentziarik izapidetuko, baldin eta, eskatu arren, klubari ez badizkio ordaindu edo bermatu kargu horretan dauden aurrekoei zor dizkien zenbateko guztiak.

Batzorde Jurisdikzionalak eta Adiskidetzekoak, BFF-FVFko Entrenatzaileen Batzordeari entzun ondoren, klubak eman beharreko bermearen edo fidantzamenduaren zenbatekoa, forma eta baldintzak zehaztuko ditu, harik eta ebazpena ematen den arte, teknikari berri bat inskribatu ahal izan dezan.

2. Horri kalterik egin gabe, ez da entrenatzaileen lizentziarik izapidetuko, ez berrituko, eta futbolariengandik ere ez da libratuko, dena delako urteko ekainaren 30ean aurreko entrenatzaileari edo entrenatzaileei zor zizkieten zenbateko guztiak ordaindu edo bermatu ez dituzten klubei; ez-ordaintze horrek, gainera, eta erregelamenduz aurreikusitako beste ondorio batzuk alde batera utzita, administrazio- eta federazio-eskubideak etetea ekarriko du.

Haiekin kontratua sinatu duten klubak eta entrenatzaileak libre dira, auzirik egonez gero, lan-jurisdikziora edo Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordera jotzeko. Lehenengo bidea aukeratzen badute, Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea automatikoki inhibituko da gaia ezagutzetik.

Aipatutako federazio-batzordeak auzia ulertzen badu, hilabeteko epean ebazpena eman beharko du, eta, kasu bakoitzean, batzorde horretako inguruabarrak haztatu eta baloratu beharko ditu.

## 69. ARTIKULUA Entrenatzaile Eta Jokalari Lizentziaren Aldiberekotasuna

1. Denboaraldian zehar haien jarduera etendu duten entrenadoreek, futbolari lizentzia egin ahal dute, kontutan izanda denboraldi horretan egon diren klubak ezin duela klub berriarekiko erlazioarik izan, ez dependentzia ez filial izaerakoa.

2. Entrenatzaile titularraren edo entrenatzaile laguntzailearen titulazioa duten futbolariek teknikarien lizentzia horiek futbolariarenarekin batera hartu ahal izango

dituzte, baina soilik teknikari gisa jardun ahal izango dute lizentzia duten klubaren mendeko taldeetan edo filialetan, eta gazte eta beheragoko mailako beste klub batzuetan, edo bigarren edo hirugarren mailako eskualdekoetan.

3. Bat egite ematen den kluben teknikariek haien komrpomisua amaitzen dute eta nahi duten klubetan izan eman dezakete, beti ez kontuta izanda ez doazela honako Legediaren aurka.

## II. KAPITULUA

## TEKNIKARIEN BESTE LIZENTZIA MOTAK

### 70. ARTIKULUA Teknikarien Beste Lizentzia Batzuk

1. Modalitate Nagusian hurrengoak ere Teknikarien lizentziak dira:

a)”D”: Ordezkaria. Formulario ofiziala beharrezkoa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola.

b)”M”: Medikua. Kontratua eta titulazioa ofiziala beharrezkoa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola.

c)”PF”: Prestatzaile Fisikoa. Formulario ofiziala eta titulazioa ofiziala beharrezkoa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola.

d)”ATS/FTP: ATS edo Fisioterapeuta. Kontratua eta titulazio ofiziala beharrezkoa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola.

e)”EM”: Materialaren Arduraduna. Kontratua beharrezkoa. Futbola eta Emakumezkoen Futbola. Aulkian tokirik ez izateko mugarekin.

f)”AU”: Laguntzailea. Futbola eta Emakumezkoen Futbola. Beharrezkoa osasun-titulua.

g)“COF”: Futbol kordinatzailea. Beharrezko titulazioa.

h)”MO”: Monitorea. Formulario ofiziala eta dagokion mailako titulazioa beharrezkoa, Futbol eta Emakumezkoen Futbola.

2. Hurrengoak ere Areto Futboleko espezialitatean Teknikarien lizentziak dira:

a)”MOS”: Areto Futboleko Monitorea. Formulario ofiziala eta dagokion mailako titulazioa beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

b)”MOS2”: Areto Futboleko Bigarren Monitorea. Formulario ofiziala eta dagokion mailako titulazioa beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

c)”DS”: Areto Futboleko Ordezkaria. Formulario ofiziala beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

d)”MS”: Areto Futboleko Medikua. Kontratua eta titulazioa ofiziala beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

e)”PFS”: Areto Futboleko Prestatzaile Fisikoa. Formulario ofiziala eta titulazioa ofiziala beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

f)"ATSS: Areto Futboleko ATS edo Fisioterapeuta. Kontratua eta titulazio ofiziala beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

g)"EMS": Areto Futboleko Material Arduraduna. Kontratua beharrezkoa. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola. Aulkian tokirik ez izateko mugarekin.

h)"AUS": Areto Futboleko Laguntzailea. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola. Beharrezkoa osasun-titulua.
i)"COFS": Areto Futboleko Kirol-koordinatzailea. Beharrezkoa da kontratua eta titulazioa egiaztatzea. Areto Futbola eta Emakumezkoen Areto Futbola.

3. Hondartza-futbolaren espezialitateko lizentziak dira, halaber, honako hauek:

a) "DP": Hondartzako ordezkaria. Beharrezkoa da eredu ofiziala. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

b) "MP": Hondartza-medikua. Beharrezko kontratua eta titulazio ofiziala. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

c) "PFP": Hondartzako prestatzaile fisikoa. Beharrezkoa da eredu ofiziala eta titulazioa. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

d) "ATSP": ATS edo Hondartzako Fisioterapeuta. Beharrezko kontratua eta titulazio ofiziala. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

e) "EMP": hondartzako materialaren arduraduna: beharrezko kontratua. Hondartzako Futbola eta Emakumezkoen Hondartza Futbola.

f) ''AUP'': hondartzako laguntzailea: hondartzako futbola eta Emakumezkoen hondartzako futbola.

4. Entrenatzaile titularrarena, entrenatzaile laguntzailearena, atezainen espezialistarena, prestatzaile fisikoarena edo monitorearena ez den lizentziadun emakumezkoen futboleko, areto-futboleko eta futboleko teknikariek teknikari-lizentzia bat baino gehiago izan ahal izango dute klub bereko hainbat taldetan.

5. "ET", "EA", "MO", "EST", "ESA", "ETPL", "EAPL", "MOS", eta "MOS2" lizentziak Futbolan, Areto Futbolan eta Emakumezkoen Futbolan eta Hondartza Futbola entrenatzeko ahalmentzen dute, beti ere titularra maila bakoitzarentzako eskatzen den titulazioa duenean.

6. "M", "ATS/FTP", "MS", "ATSS", "MP" eta "ATSP" lizentziek Estatuko titulazio ofiziala eskatuko dute, edo, halakorik ezean, homologatua Espainiatik kanpoko titulazioetarako.

7. "PF", "PFS" eta "PFP" lizentziak , derrigorrezko titulu akademikoa kreditatu ondoren egingo dira.

8. Honako lizentzia hauek titularrak 16 urte baino gehiago izatea eskatuko dute: «D», «DS», «DP», «EM», «EMS» eta «EMP».

**70. Bis Artikulua.- Futbol eta Areto-futboleko kirol-koordinatzailearen lizentziak**

1.Koordinatzaileak inskribatzea.

1.1. Kirol-koordinatzaile baten inskripziotzat jotzen da klub batekin lotura izatea,

konpromiso edo kontratu bat formalizatuz, eta horrek harreman eta lotura hori adostasunez ezartzea.

1.2. Kirol-koordinatzaileen inskripzioa EFF-FVFak ezarritako inprimaki ofizialaren bidez formalizatuko da, eta interesdunak, inprimaki horretan eskatzen diren datuez eta dokumentazioaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu: Entrenatzaile-titulua; Lurralde-federazioetako Entrenatzaile-eskolako Kirol-koordinatzailearen espezialitateko ikastaroa arrakastaz gainditu izanaren ziurtagiria, klub batean kirol-koordinatzailearen eginkizunak betetzen dituela egiaztatzen duena; gaitasun-ziurtagiri medikoa; nahitaezko kirol-aseguruan edo mutualitatean alta eman izana; Entrenatzaileen Batzordeari afiliazio-oniritzia eman izana; ezartzen den lizentziaren prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria eta sexu-izaerako delituen ziurtagiri eguneratu negatiboa izatea.

Koordinatzailearen behin betiko lizentzia EFF-FVFak emandako agiria da, inskribatuta dagoen klubak bere karguari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitzen duena, eta EFF-FVFaren Estatutuak, Erregelamenduak eta gainerako xedapenak onartzen dituena, baita RFEF, FIFA eta UEFArena ere. Aipatutako lizentzian, halaber, lizentzia hori lortuko duenak duen entrenatzaile-titulua jaso beharko da, lizentzia-sisteman titulu hori jaso ondoren.

2.Koordinatzaileen eskumenak.

2.1. Dagokion Lurralde Federazioetako Entrenatzaile Eskolako Kirol Koordinatzailearen espezialitateko ikastaroa gainditzeak, zeina Eskola horrek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko baita, kontratatu den Klubeko taldeen arteko koordinazio-lanak egiteko ahalmena ematen du. Koordinazio-eginkizun horiez gain, koordinatzaileek honako jarduera hauek ere egin ahal izango dituzte: zuzendaritza teknikoa, programazioa, plangintza, orientazioa, kontrola, gainbegiratzea, ebaluazioa, balorazioa eta antzeko funtzioak dena delako klubean, eta, zenbait kasutan, baita kudeaketako eginkizun instrumentalak ere.

2.2. Kontratatuta dagoen Klubeko talderen batean entrenatzaile titularrik edo laguntzailerik ez badago, hura ordeztu ahal izango du, baldin eta bere entrenatzaile-titulua bat badator entrenatuko duen taldearenarekin. Gainera, ordezko gisa jardun ahal izango du, gehienez ere 3 partidatan, taldeko eta kirol-koordinatzailearen lizentzia lortu duen klubeko denboraldiko, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe. Horretarako, interesa duen Klubak aldez aurretik eskatu beharko dio Bizkaiko Entrenatzaileen Batzordeari, posta elektronikoz edo beste bideren batez, partida hasi baino 48 ordu lehenago gutxienez, eta horretarako prestatutako eredua bete beharko du. Bizkaiko Entrenatzaile Batzordeak berak bidaliko dio eskaera hori Bizkaiko Federakundeari, dagokion partidako aktan jasota gera dadin kirol-koordinatzaileak ordezkatuko duela entrenatzaile titularra edo laguntzailea. Behar bezala justifikatutako urgentziazko kasuetan, interesa duen Klubak dagokion jakinarazpena egin beharko die Bizkaiko Entrenatzaileen Batzordeari eta Bizkaiko Federakundeari, partida hasi aurretik eta gertaeraren berri izan bezain laster.

2.3. Taldeko ordezkariak gorabehera honen berri eman beharko dio, kasu guztietan, partidako arbitroari, gertaera hori partidako aktan ager dadin.

2.4. Titularra kargutik kendu delako entrenatzailea falta bada, aulkian ordezkatu ahal izango du, betiere titulazioa badu, gehienez ere bi astez.

3.Kirol-koordinatzailearen kontratua.

3.1. kirol-koordinatzaileak eta klubaren legezko ordezkariek sinatutako kontratua, EFF-FVFan aurkeztuko da, aplikazio informatiko baten bidez.

Kontratuarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Lurralde-federazioetako Entrenatzaileen Eskolako Kirol-koordinatzailearen espezialitateko ikastaroa arrakastaz gainditu izanaren ziurtagiria, klub batean kirol-koordinatzailearen funtzioak betetzen dituela egiaztatzen duena.
- Lizentzia argazkiarekin.
- Medikuaren ziurtagiria, kirola egiteko gaitasuna adierazten duena.
- Sexu-izaerako delituen ziurtagiri negatiboa.
- Lizentziaren tramitazioa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Dagokion Entrenatzaile Batzordeko kide egin izanaren egiaztagiria.
- Tramitatzen den kategoriarako eskatzen den entrenatzailearen titulua.

4.Kirol-koordinatzaileak kontratatzea.

4.1. Klubek kirol-koordinatzaile bat edo gehiago kontratatu ahal izango dituzte, eta horiek Kirol-koordinatzailearen espezialitateko ikastaroa arrakastaz gainditu izanaren ziurtagiria izan beharko dute gutxienez, eta "COF" edo "COFS" lizentzia bideratu beharko dute. Nolanahi ere, eta kontratatuta dagoen Klubeko talderen batean entrenatzaile titularrik edo laguntzailerik ez badago, kirol-koordinatzaileak ordezka dezan, horietako batek bakarrik, eta beti berak, entrenatzaile titularra edo laguntzailea ordeztu ahal izango du kontratatuta dagoen klubeko taldeetan.

4.2. Klub baten eta kirol-koordinatzaile baten arteko harremana hautsiz gero, arrazoia edozein dela ere, azken honek beste klub batean jardun ahal izango du denboraldi berean, koordinatzaile gisa, betiere izena eman nahi duen klubak ez badu talderen bat aurrekoaren maila berean.

5.Gainerakoan, klub bateko Futboleko eta Areto-futboleko kirol-koordinatzaileari, artikulu honetan ezarritakoaz gain, aplikatu behar zaio Araudi honetako II. Liburuko VI. Tituluan teknikariei eta haien lizentziei buruz xedatutakoa.

## VII TITULUA

## LIZENTZIEN KITAPENA

### 71. ARTIKULUA Lizentzien Kitapena

Ondorengo egoerak futbolarien lizentzien kitapen kausa dira:

1. Klub-ak emandako baja.

2. Futbol jokalariaren jolasteko ezgaitasun iraunkorra.

3. Klub-ak txapelketa ofizialetan parte ez hartzea edo jolasten ari diren txapelketatik erretiraketa.

4. Disoluzio edo kanporaketa ondorioz, kluben baja.

5. Federakor eskubideen transferentzia.

6. Eskudun kirol organoek hartutako akordioa.
7. Futbolariak, inskribatuta jarraitzeko ezezkoa eman eta gero, klub desberdinen arteko fusioa.

8. Arautegi honetan espezifikoki azaltzen ez den beste edozein zergati.

72. ARTIKULUA Efektuak

Lizentziaren kitapenak futbolariaren eta klubaren arteko lotura guztiak puskatutzat ematen ditu, eta lehenengoari beste edozein batean adskribatzeko askatasuna ematen dio, beti ere bere zelairapenak Arautegi honen xedapen eta aurrikusiei mugatuta egonik.

Ezeztatzea gertatzen bada jokalariak kirol jarduerari uzten dionean, hasierako konpromisoa indarrean egonda ere itzuliko balitz, klubera itzuliko da lizentzia indargabetu baino lehenagoko egoeran, federakundeari dagokionez.

## III LIBURUA

## TXAPELKETAK

## I TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 73. ARTIKULUA Kirol Denboraldia

1. Denboraldi ofiziala urtearen Uztailak 1ean hasiko da eta hurrengoaren Ekainak 30 bukatu.

2. Ohizko Batzar Nagusiak, FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, denboraldiaren txapelketa eta lehiaketa ofizial desberdin guztien hasiera eta bukaera egunak erabakiko ditu.

3. Ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan, BFF-FVFren Zuzendaritza Batzordeak antolatzen dituen lehiaketak erabat edo zati batean eten ahal izango ditu, eta uko egiteen edo beharrezkoak diren beste inguruabar batzuen aurrean doikuntzak egin ahal izango ditu lehiaketa guztietan.

# II TITULUA

# FUTBOL ZELAIAK

## 74. ARTIKULUA Titulartasuna

1. Denboraldia hasi baino lehen, dena delako txapelketan izena ematean, klubek partidak zein zelaitan egingo dituzten jakinarazi beharko dute. Baldintza hori bete ezean, ez dute txapelketetan parte hartzeko baimenik izango, eta denboraldirako kontratuaren fotokopia aurkeztu beharko dute zelaiaren titular ez diren klubek.

2. Aparteko zirkunstantziarenbat ematen baldin bada eta ezinbesteko batean, klub batek bere zelaia ezingo balu ihardunaldi batean edo gehiagotan erabili, federakor baimen egokia eskatu beharko luke beste zelai batean jolasteko, zergatien aurrejustifikazioa azalduz eta hamar egun baino gehiagoko aurre-abisu baten bitartez.

Aparteko kasuetan bakarrik eta klub-ak edo K.E.ek beste zelai bat lortzeko egindako gestio guztiek fruiturik eman ez dutela behar den moduan frogatu eta gero, dagokion Federakundea izango da partidua jokatuko den zelaia, eguna eta ordua aukeratuko dituenak.

## 75. ARTIKULUA Futbol Zelai Eta Kirol Instalazio Baldintzak

1. FIFA-ko arauetan zehazten den araudiak ezarritako baldintzak biltzen dituzten zelaietan ospatuko dira partida ofizialak, zeinak Internazional Association Board-k delakoak onartutakoak diren.

2. Klubek bermatuko dute denboraldian zehar BFF-FVFko eskubidea zelaia erabiltzeko edo izendatzeko bere edozein Federakor jardueran.

3. Futbol zelaia gainazalera laua eta horizontala duen laukizuzen bat izan beharko da, lurra, belarra edo dagokion Federakundeak bere garaian baimendutako materiale artifizial batez eginikoa, Jokuaren Arauak adierazten dituen neurrietara zorrozki egokitua.

Modu berean, F.I.F.A.k ezarritako xedapenak jarraituz, zelaiaren markaketari dagokionez, Arau hauetan adierazten dena jarraitu beharko da; ate-areak, penalti-areak, korner-areak; zutoinak, ate-langetak, hauen sareak eta banderak, bai kornerrekoak bai marrazainek erabili beharrekoak, eta entrenatzailearen mugimenduak mugatzen dituen area teknikoa.

4. Zelai guztietan marrazainak bere lana egin dezan, ehunez egindako bi bandera egon beharko dira, laranja bata eta horia bestea, brodatu eta inskripziorik gabe, 50 x 40 zentimetrotako laukizuzen bat osotuz eta beraien alderdi estuena bi zentimetrotako gehienezko diametroa eta hirurogei zentimetrotako luzera duen makil zilindriko bati itsatsita egonik.

5. Partida ofizialak ospatzeko artifizial argiak potentzia nahikoa izan behar du jokoa egoera ezin hobeagotan jolasteko, baldintza hau ziurtatzeko, aurretik federakundeak eginiko azterketak homologatuko du intalazioa.

6. Txapelketa ofizialak jokatuko diren zelaiek barne-hersgunea izango dute, talde bakoitzarentzat eta arbitroarentzat aldagela independenteak, ur hotza eta beroa duten dutxa eta konketak dituztelarik.

7. Barne hesiguneari dagokionez, publikoa joko-laukizuzenetik isolatuko du, ehun eta hogei zentimetroko altuera izango du gutxienez, eta alboetatik bi metro eta erdiko distantziara egongo da.

8. Jokalarien, arbitroen, marrazainen, entrenatzaileen eta laguntzaileen sarrera eta irteera egiteko esklusiboki destinatua dagoen pasagune babestu bat izango da. Pasagune hau, jendea dagoen lekutik bereizirik egongo da.

9. Urgentziazko botikin bat, eta klub bakoitzak derrigorrez eduki beharreko eskuohetxo bat.

10. Zelai erdiko marrako alde bietan, honetatik hurbil, bankiloak ezarri beharko dira, ordezko jokalari, entrenatzaile, auxiliar, eta taldeko zaintzaileentzat, hamaika maximoa izanik.

11. Zelaia bedar artifizialekoa izanez gero, derrigorrez gomazko takoak dituen oinetakoak edo egokia dena erabili beharko da.

**76. ARTIKULUA Debekuak**

Futbol zelaietan animalien sarrera debekatua dago, baita belar-zelaiak jokalarientzat kaltegarri izan daitezkeen ongarriekin ongarriztatzea ere. Era berean debekatuta dago beirazko ontziak santzea.

**77. ARTIKULUA Komunikazio Beharra**

1. Klubek dagokien FVF-BFFari beraien zelaien neurri, kondizio, aforo, eraiketa edo aldaketen berri eman behar diote. Aldaketa bat egiten den bakoitzean, Federakundean esateaz gain, obrak egin eta gero futbol zelaia eta bere instalakuntzak zein egoeratan gelditzen diren azaltzen duen eskala-plano bat bidali beharko diote.

2. Denboraldian zehar, hasiera batean aitortu diren futbol zelaiaren neurriak aldatzea debekatua dago.

**78. ARTIKULUA Zelaien Eta Areto Futboleko Pabiloien Ikuskapena**

1. FVF-BFFk, jolasten ari diren zelaiak dagokien kategorirako edo mailarako eskatzen diren kondizioak betetzen ote dituzten ikusi eta ondorengo txostena betetzearren, azken hauek inspekzionatzeko ahalmen osoa du.

2. Inspekzioa egin eta gero zenbait akats daudela ikusi ezkero, instalazio horien klub titularri honen berri emango zaio eta akats hauek konpontzeko hamabost egun izango ditu; epea bukatu eta gero akatsak oraindik konpondu gabe egongo balira, eskudun diziplina organoari honen berri emango zaio eta honek iraupen berdineko beste epe berri bat emango lioke; epea bukatu eta gero konponketa egin gabe egongo balitz, ezingo lirateke zelai horretan txapelketa ofizialeko partiduak jolastu.

3. Aurreko artikuluan aipatzen diren inspekzioetaz gain beste zenbait ere egin daitezke, hau da, ofizio edo alderdi baten errekerimenduz. Bigarren ustezko honetan, egiaztapen diligentziak salaketa egin eta hurrengo hamabost egunetan barru egin beharko dira. Salaketak funtsa izango balu, zelaiaren titularrak sortutako gastuak ordaindu beharko lituzke eta funtsik gabekoa izango balitz, errekeritzaileak.

**79. ARTIKULUA Areto futboleko pabilioiak. Kokapena eta ezaugarriak**

Klubek lehiaketa ofizialetako partiduak pabilioi estalian egin behar dituzte, euren gizarte egoitza dagoen udalerrian, salbu eta, behin-behineko eta ageriko ezintasunagatik, ondoko udalerrian edo hurbilen dagoenean egitea baimentzen bada.

Partidu ofizialak Joko Arauetan, Araudi honetann eta bere eskuduntzen barruan Areto Futboleko Euskadiko Batzordeak ezarritako arauekin bat egin behar dira.

**80. ARTIKULUA Areto Futbolean Jokatzeko Pabiloiak. Baldintza Bereziak**

1. Txapelketetako partiduak jokatu beharko dira, ezinbestean, pabiloi erabat estalietan, ondorengo baldintzak kontuan hartuta:

a) Joko-eremua angeluzuzena izango da, betiere luzera zabalera baino handiagoa izanik, neurriak 40 x 20 m lirateke, 2 metroko aldea onartuz, gora ala behera.

b) Joko-eremua eta ikusleak bereizteko baliabide fisiko finko egokiak, ikusleak joko-eremura sartzea eragozten dutenak, bereziki partidua amaitzean, eta partaideak bertatik irtetea ahalbidetuko duena.

c) Futbolariak, arbitroak, kronometratzaileak, entrenatzaileak, laguntzaileak edota baimena duen beste edonor esklusiboki sartzeko eta irteteko pasabidea; ikusleengandik bereizita dago, bere hedadura osoan behar bezala babestua.

d) Debekatuta dago ikusleak edota baimendu gabeko edozein persona joko-eremura zein segurtasun-eremura sartzea.

e) Markagailu elektronikoa, zeinetan islatu beharko den: jokoaren iraupena eta unea, emaitza, talde bakoitzak metatu hutsegite kopurua, jokoa eteteko eta ohartarazpenetarako soinu seinalea, behar bezainbat intentsitatekoa, partaide guztiek entzuteko modukoa, etenaldi partzialarekin eta jarraipenarekin, ohar-hartzaileen mahaitik erraz ikusi ahal dena.

f) Parket, kautxu, egur, linolio edota antzeko materialeko zorua, kiskaltzen ez dena, CVFS homologazioa, eta joko-eremuaren inguruko aginduetan xedatu gainerako baldintzatzaileak betetzen dituena.

g) Talde bakoitzerako aldagela independenteak, gutxienez hamabost pertsona hartzen dituztenak, arbitroen aldagelak, lau lagun hartzen dituztenak, dutxak eta ur hotzarekin zein beroarekin hornituriko konketak.

h) Osasun laguntzarako baliabideak, partaideen zein ikusleen larrialdiak artatzeko beharrezkoak, xede horietarako dagokion gela erabilgarria barne.

i) Ordezko futbolarien eta teknikarien eserlekuak joko-eremuaren alboko lerroetako batean, ohar-hartzaileen mahaiaren albo bietan; edozein kasutan, joko-eremuaren erdiko lerrotik gutxienez bost metrora finkatu beharko dira, horrela, aulkiak ikusleak bereizteko hesitik gutxienez bimetrora finkatuko dira.

j) Joko-eremutik kanpoko mugen artean, eta bere perimetro osoan, finkatuko da, alboetan, gutxienez metro bateko distantzia eta hondoetan, distantzia gutxienez bi metrokoa izan beharko da, edozein kasutan, jokoaren garapena eragotziko lukeen edozein objektu saiheztuz.

2. Klubek joko-eremua dagokion bezala, arautegiaren arabera hornituta eta partiduak

ospatzeko seinaleztatuta mantendu beharko dute, txapelketaren antolatzaileari aurretiaz adierazi guztia aldatzea ezinezkoa izanik. Horrela, denboraldian zehar, debekatuta dago aldatzea joko-eremuaren neurriak zein baldintzak, jokoaren hasieran adierazten direnak.

Pabiloiaren eta joko-eremuaren baldintzak ezusteko arrazoiren batengatik aldatuko balira, horien egokitzapena berehalakoa izan beharko litzateke.

**81. ARTIKULUA Areto Futboleko Joko Eremua**

Konplitu beharko ditu, ordenamendu honetan xedatu baldintzez gainera, FIFA-ren Joko Arauetan xedatuak, bereziki joko-eremuko marraketaren, penalti-eremuen, zutoinen, ateetako langen eta sareen inguruko hala nola etorkizunean xedatu ahal izango den beste edonolakoren inguruko baldintzak.
Kirol instalaziotan erabilgarri dauden elementuen inguruko arauak Zirkularraren bidez aldatu ahal izango dira

**82. ARTIKULUA Sarrera Eskubideak Eta Benettakotze Agiriak**

1. FVF-BFFko Presidenteak, zelai guztietan presidentepalkura sartzeko eskubidea izango dute, bertan preferentzi tokia izanik.

2. FVF-BFF-ko Zuzendaritza Batzordeak, Presidentearentzat finkatu den egoera berdinetan, preferentzi tokia izan beharko dute baita ere.

3. Partidua jokatzen duten bi klubetako Presidenteek edo Ordezkariek ere Presidente-palkuan lekua izateko eskubidea dute.

4. FVF-BFFk luzatutako karnetaren jabe direnek ere, dagokizkien jurisdikzioen barne, federatuta dauden kluben zelaietan, egoera hauentzat ezarrita dauden kondizioetan, dohainik sartzeko eskubidea izango dute. Hau dela eta, denboraldiaren hasieran, klub guztietara karneta indarrean duten titular guztien zerrenda bat bidaliko da.

5. BFF-FVF-k luzatutako akerditaziodun arbitro eta ordezkari-informatzaileek futbol zelaietarako sarrera baimendua izango dute.

## III TITULUA

## PARTIDUAK

**83. ARTIKULUA Joko Arauak**

1. Partiduak, bai ofizialak bai adiskidantzakoak, Nazioarteko Futbol-Federazioak, FIFAk onartutako eta RFEF-EFFEk ofizialki argitaratutako “International Board”-aren Araudiek finkatzen dutenaren arabera jolastuko dira, ETA Areto Futbolekoak ere, era berean, Futbol 7 modalitatea xede horretarako egindako arautegiari atxikiz jokatuko da.

2. Partiduen iraupena honako hau izango da:

Umetxoak: 51 minutu, 17 minutuko hiru zatitan
Umeak: 51 minutu, 17 minutuko hiru zatitan.
Gaztetxoak: 70 min, 35 minutuko bi denboratan.
Kadeteak: 80min, 40 minutuko bi denboratan.
Gazteak: 90min, 45 minutuko bi denboratan.

Afizionatuak: 90min, 45 minutuko bi denboratan.
Partidu guztietan 15 minutuko atsedenaldia izango da.
Aretoan: Bizkaiko Batzordeak kasu bakoitzean zehazten duena.

Horietan guztietan 15 minutuko atsedenaldia ezarriko da, Umetxoetan eta Umeetan izan ezik, horietan iraupena 5 minutukoa izango baita.
Aretoan eta hondartzan: Bizkaiko Batzordeak kasu bakoitzean erabakitzen duena.

**84. ARTIKULUA Kirol Barrutian Aurkeztea**

Lehiakide-taldeak eta beraien ordezkariak, aldageletan partidua hasteko finkatuta dagoen ordua baino berrogeitabost minutu lehenago egon beharko dute, eta denbora honekin lizentziak epaileari aurkeztu eta jokaliriak identifikatu bere kasuan.

**85. ARTIKULUA Futbolarien Uniformea**

1. Jokalariek, beraien klubeko uniforme ofiziala jantziko dute. Kamisetaren atzekaldean, erraz ikusgai, nabarmen eta kontrastasun nahikoarekin, jokalarien zerrendan dagokion zenbakia agertuko da, hogeita bost zentimetroko altuera izango duena.

2. Nahi duten klubek, gehienez 1etik 25erako zerrenda ezarri ahal izango dute eta jokalari bakoitzak zenbaki berbera eraman beharko du txapelketa ofizialeko partidu guztietan, 1 eta 13 zenbakiak atezainentzat erreserbatuz.

Ordezko edo menpeko klub edo K.E.etako jokalariren bat jokatuko balu, hauek ere jolasten
duten bakoitzean, zenbaki finko bat izan beharko dute.

3. Denboraldia jolasten ari denean, ez klub-ak ez K.E.ek ezingo dituzte beraien uniformeen koloreak aldatu.

4. Bata bestearen kontra jolasten duten bi taldeen uniformeen koloreak berdinak edo nahasketa sor dezaketen koloreak baldin badira eta arbitroak horrela eskatzen baldin badu, aurkakoaren zelaian jolasten duen taldeak bere uniformea aldatu beharko du. Partidua zelai neutralean jokatuko balitz, azken afiliatu den taldeak aldatuko du.

**86. ARTIKULUA Ordutegiak**

1. Araudi honen 74. artikuluan zehazten denarekin bat, klub edo K.E.ek beraien instalakuntzetan jolasten diren partiduen hasiera ordua askatasun osoz ezarriko dute, guzti hau FVF-BFF organo aproposaren fakultateei kalterik egin gabe, ez eta txapelketa eta diziplina organoek finkatzen dutenarekin, kasu berezi eta justifikatuak direnean.

2. Denboraldia hasi eta beraien partiduen ordutegiaren berri eman ez duten edo eman eta gero aldaketarenbat egiten duten klubek, FVF-BFFri ordutegi berriaren berri eman beharko diote gutxienez partidua jolastu behar den eguna baino sei egun lehenago, eta ondoren, Arbitro Batzorde Teknikoa jakinaren gainean jarriaz.

3. Partiduen hasiera ordua hauek nahiko argi naturalarekin jolastu daitezen finkatuko da, eguzkia ipini baino bi ordu lehen baino beranduago hastea debekatuta egonik, FVF-BFFk edo dagokio homologatutako argigintza sistema bat izan ezik.

**87. ARTIKULUA Baloiak**

1.Partiduetan erabiltzen diren baloiak Jokuaren Arauak zehazten dituen pisu, neurri eta

presio baldintzak bete behar dituzte. Partidua jolastu behar den zelaiaren titularra den klubak arbitroak behar den bezala kontrolatuta dituen honelako hiru baloi eduki behar ditu prest jokurako.

2. Denboraldi bakoitzean partidak zein baloi ofizialekin jokatu behar diren zehaztu ahal izango du BFF-FVFk.

3. Hala ere, taldeko kapitainen bidez txarto dagoen baloi baten aldaketa proposatu dezakete, epaileak erabakiz inzidentziaz.

4. Lokalean aritzen den klubak hiru baloi ofizial utzi beharko dizkio talde bisitariari partida hasi baino hogeita hamar minutu lehenago. Hiru baloi horiek partida amaitzean eman beharko zaizkio etxeko taldeari.

**88. ARTIKULUA Kirol Egokitasun Aproposa**

1. Klub-ak beraien zelaietan jolasten diren partiduak kirol egokitasun aproposean jolastu daitezela erantzule dira. Baita zelaiaren zerbitzuak behar den moduan antolatuta egon daitezela, hau da, aldagelak eta gainontzeko egotegi eta instalakuntzak, eta indar publiko nahikoa egon dedila.

2. Indar publikoa bertan ez denean eta arbitroaren jokabide askatasuna segurtatzeko, etxeko klubek entitatearen zuzendaritzakoek edo kolaboratzaileek osatutako ordenu zerbitzu bat adierazgarriren batez izan beharko dute. Aipatutakoek arbitroari jakinaraziko diote nortzuk diren partidua hasi baino lehen.

3. Bisitariek ere, deportibitate eta zuzentasun beharkizunak dituzte.

**89. ARTIKULUA Parte Hartzaileak**

1. Partidua jolasten ari den bitartean, debekatuta dago futbol zelaietan jokalariak eta arbitro-taldea ez diren beste guztiak bertan egon daitezela eta bi entrenatzaileak arlo teknikoetan.

2. Talde bakoitzeko aulkian egon ahalko dira ordezko jokalariak, eta dagokionean, ordeztutakoak. Azken horiek kirol jantziak soinean eduki beharko dituzte.

Halaber, aulkian egon ahalko dira euren jarduera betetzeko egiaztagiri egokia nahiz dagozkien lizentziak dituzten pertsonak. Lizentzia zein egiaztagiri horiek arbitroari eman behar zaizkio aldez aurretik.

Entrenatzaile titularraren edo entrenatzaile laguntzailearen lizentzia duen entrenatzaileak edo haren ordezkoak bakarrik izango du altxatzeko ahalmena, bere taldeari jarraibideak emateko. Arau hau hausteak ekarriko du diziplina-arloko erantzukizunak argitzea.

3. Areto-futboleko espezialitatean, gehienez ere hamalau pertsonak beteko dute talde bakoitzaren aulkia; talde horren ordezkariak, entrenatzaile titularrak, entrenatzaile laguntzaileak edo haren behin-behineko ordezkoak, medikuak, fisioterapeutak edo ATSak, prestatzaile fisikoak eta material-arduradunak, guztiak ere dagokion partidaren kategoriarako Lizentzia egokiarekin gaituak, bai eta aldizka zazpi jokalari ordezkoak ere.

Aldageletako esparruetara honako hauek bakarrik sartu ahal izango dira: arbitraje-taldeko kideak, aktan inskribatutako jokalariak, entrenatzaileak, medikuak, fisioterapeutak, ATSak, materialaz arduratzen direnak eta lehiakide diren klubetako eta

pistako ordezkariak, arbitraje-antolakuntzakoak, EAFB-CVFSkoak eta Lurralde Federaziokoak. Beste edozein pertsona bertan egotea dagokion diziplina-organoak zehatu ahal izango du.

4. Futbol zelaia eta azken hau jende artetik bereizten duen hersgunearen artean dagoen tartean, zelai- eta partidu-ordezkariak, kreditaturik dauden argazkilariak, telebista kamerak eta kirol kazetariak, zerbitzua prestatzen ari diren autoritate agenteak, klubaren kolaboratzaileak eta, izanik, entrenatzailearen aginduz beroketa ariketak egiten ari diren jokalariak bakar bakarrik egon daitezke.

5. Kanporatuak izan direnak aldageletara joan beharko dira. Aipatutako beharra ez betetzea zigor diziplinarioren arrazoia izango da.
Teknikari bat (entrenatzailea edota entrenatzaile laguntzailea) kanporatua izanez gero, ezin izango da kokatu aulkiak dauden banda osoan zehar, harmailetan kokatu daiteke, hala nola, zelairaren beste perímetro osoan zehar.

Aurreko paragrafoan ezarritako beharrekoa, taldeen medikuak, ATS edo Fisioterapeutak salbuesten dira zein postu bat aulkian hartzen jarraitu ahal ez izan arren, bera ikusten jarraitu ahal izango dute eta horrela arbitroak eskatzen dionean bere zerbitzuak. Hura, diziplinazko organoak egindako arau-hausteagatik inposatu ahal izan zien zigorrari kalterik egin gabe.

**90. ARTIKULUA Aldageletara Sarrera**

Aldagela esparrutik arbitroak eta marrazainek, jokalariak, entrenatzaileak, laguntzaileak, medikuak eta partiduan parte hartzen duten klub edo K.E.en ordezkariek, zelai-ordezkariek, Arbitro- eta Federakor Batzordearen ordezkariek izango dute sarrera, bertan izanik.

## IV TITULUA

## TXAPELKETAK OROKORREAN

**91. ARTIKULUA Jolasteko Betebeharrak**

1. Txapelketa baten egutegia prestatu eta gero, bertan azaltzen diren klub edo K.E. guztiek txapelketa hori jolasteko beharkizuna hartzen dute, beraz, lehenengo taldearekin partidu guztietara azaltzeko eta arauzko zehazpenek adierazten duten moduan osorik jolasteko beharra.

2. Lehenengo talde bezala ulertuko da, gutxienez parte hartzen duten mailako eta taldeko lizentzia duten zazpi jokalariz osatuta dagoen taldea, inskribatuta eta jolasteko gaitasunarekin.

3.Finkatuta dagoen ordua eman bezain azkar, arbitroak partidua hasteko seinalea emango du. Finkatutako ordua eman eta handik hamabost minututara bi taldeetako bat ez balitz aurkeztu edo hurrengo artikuluak zehazten duen jokalari kopuru gutxiagorekin aurkeztuko balitz, betebeharreko aktan egoera hau aditzera emango da eta talde hau ez-agertutzat joko da. Partiduaren hasiera ordutik denbora bera pasa ezkero, epailea agertu barik, partidua suspenditu egingo da, taldeetako delegatu biek dokumentu bat sinatuz eta bera federaziora bidaliz.

4.Partidua hasi dadin, talde bakoitzak, gutxienez, mailako eta taldeko zazpi jokalari

eduki beharko lituzke. Jokalari kopurua txikiagoa balitz, arbitroak partiduaren etendura dekretatuko du. Kopurua txikiagoa balitz, epaileak partida eten egingo du, eta hala jokatzen duen kluba bertaratu ez dela ulertuko da, ezinbesteko arrazoirik egon ezean.

Taldeak gehienez ere filial-taldeetako edo mendeko taldeetako lau futbolarik osatuko dituzte partidaren garapen osoan.

Edozein arrazoi dela medio, taldea aurreko paragrafoan adierazitako lau futbolarik baino gehiagok osatzen badute, diziplina-organoak bidegabeko lerrokatzearen arau-haustetzat jo ahal izango du.

5. Partidua hasi eta gero, bi taldeetako bat zazpi jokalari baino gutxiagorekin gelditukobalitz, arbitroak partiduaren etendura dekretatuko du. Talde bat zazpi jokalari baino gutxiagorekin geratu ezkero eta arrazoia jokalarien kaporaketak izanez gero, partidua kontrako taldearen aldeko hiru eta huts-eko emaitzarekin bukatuko, honek jokatutako denboran emaitza faboragarriagoa lortu ezean, kasu honetan baliozko emaitza hau izanik. Ekintza berbera, denboraldian zehar hiru aldiz gertatu ezkero, klubari 300€ isuna ezarri eta arua hauste taldea txapelketatik kanporatua izango da, erregelamenduan ezarritako disposizioak aplikatzeko izanik.

6. Aipatutako bi kasuetan, txapelketa organoak erabakiko du zer egin.

**92. ARTIKULUA Areto Futboleko partiduak jokatzeko betebeharrak**

1. Finkatu orduan, arbitroek partida hasteko seinalea emango dute. Seinalea eman ondoren hamabost minutu pasatu direnean eta taldeetako bat falta denean, aurkeztu ez denean edota arautegiaren arabera futbolari kopurua urriagoa izaten denean, aktan kontsideratuko da zirkunstantzia bat zein bestea, legozkiokeen diziplinazko xedeetarako.

2. Talde bakoitzak gutxienez izena eman duten eta lehiaketan parte hartzen duten kategoriako eta taldeko lizentzia duten gutxienez hiru futbolari aurkeztu beharko ditu joko-azaleran eta bertan jarduteko moduan.

3. Partida hasi ondoren, taldeetako bat hiru futbolari baino gutxiagorekin geratuko balitz, arbitroek partida etetea erabakiko lukete. Taldea hiru futbolari baino gutxiagorekin geratzen denean, partida lehiakidearen alde ebatziko da, emaitza sei eta huts izanik; honek lortzen duenean izan ezik, partida eten bitarteko jokatu epean, emaitza hobea, kasu horretan emaitza hori balioduna izanik. Futbolariek lortu gabeko golak, emaitza 6-0 izaten denean, ez dira partidako futbolari partaideen golen artean kontatuko.

Kasu batean zein bestean, diziplinazko organoak dagokiona ebatziko du.

4. Taldeek aktan inskribatu beharko dituzte, partidan zehar lerrokatzeko eskuragarri dauden hiru futbolari, gutxienez, dagokien kategoriako zerrenda eratzen dutenen artekoak.

5. Betebehar hau konplitzen ez denean, lehiaketa organoak Areto-Futbolaren Diziplinazko Erregimenaren xedapenetan aurreikusiaren araberako erantzukizunak zainduko ditu.

6. Aktan inskribatu futbolarien gehieneko kopurua hamabikoa izango da; ordezkapenen kopuru mugagabea eta ordeztu futbolaria berriro joko-eremura itzultzeko aukera ahalbidetuko dira. Ordezkapenak Joko Arauen arabera egingo dira, ibiltariak izanik,

jokoa eteteko beharrik gabe.

7. Beroketa ariketak, arbitroek partida hasi aurretik finkatu baldintzen arabera garatuko dira.

8. Partidu bateko edozein partaide kanporatua izaten denean, aulkia utzi eta aldageletara joan beharko da, itzultzeko aukerarik gabe, ezta ikusleen harmailetara ere.

**93. ARTIKULUA Uko Egitea**

1. Txapelketaren bukaeran lortutako puntuaketa dela eta, igoera eskubidea duten klubek eskubide honi uko egin diezaiokete, modu honetan, igoera hau txapelketa berdina jolastu duen eta hobeto sailkatuta gelditu den hurrengo taldearentzat izango da. Txapelketak bi fase izango balitu, igoera jolasteari bigarren fasea hasi baino lehen uko egin beharko litzaioke.

2. Lehendik maila bati adskribatuta dagoen talde batek hurrengo denboraldian bertan jokatzeari uko egingo balio, automatikoki datorren hurrengo mailari erantsiko zaio eta maila honetan jokatzeari ere uko egingo balio, hurrengo mailari eta horrela elkarren segidan. Egoera hau eman ezkero, beheko mailan hobeto sailkatuta dagoen taldea igoko litzateke, eskalak ondorengotza modu honetan mugituaz.

3. Aurreko bi puntuek azaltzen dituzten ukoak, FVF-BFFri bidalitako idatzi baten bitartez formalduko dira, txapelketa moetaren arabera; idatzi hau, denboraldiari dagokion egutegi ofiziala ezarriko den Batzarre Nagusia baino hamar egun lehenago egon beharko du aipatutako Federakundearen eskuetan.

**94. ARTIKULUA Hutsuneak**

1. Ordezko talde baten erretiraketa, fusio edo beherakada bat dela eta, maila batean hutsune bat gelditzen denean, FVF-BFFek, ondorengo erizpideen aplikapena aurrera eramanez, egutegia eratu baino lehen beteko dute:

a) Mailan egoteari, hutsunea utzi zuen taldearen maila berberari adskribatuta dagoen eta, nahiz eta beherakada postuetan ez egon, goiko mailaren arrastre bat dela eta maila hori galdu duen taldeak eskubide handiagoa izango du; hemen ere, beharra sortu ezkero, eskalak lehen aipatutako ondorengotza moduan mugituko dira.

b) Aurreko atalak azaltzen duen egoera aldera batera baztertuz, hurrengo beheko mailan hobeto sailkatuta dagoen klub edo K.E.k izango du eskubide handiagoa.

2. Egutegia argitaratuta egon eta hutsunea sortu ezkero, dagokion Federakundearen eskudun organoak erabakiko du hutsunea hor uzten duen edo sailkapenaren arabera ahal den modu egokienean betetzen ote diren.

## V TITULUA

## TXAPELKETA MOETAK ETA JOLASTEKO MODUA

**95. ARTIKULUA Txapelketa Motak**

Txapelketak ondoren zehazten den moduan sailkatuko dira:

a) Joku sistemaren arabera, puntuz, kanporaketa bidez, edo hiru batean deituriko sistemaren arabera.

b) Esparruaren arabera lurraldekoak.

c) Ordenaren arabera, sistema eta esparru berdinaren barnean, ezarritako hainbat mailetan.

d) Izatearen arabera, ofizialak eta ez-ofizialak.

e) Parte hartzen duten jokalarien izaeraren arabera, Umetxo, Ume, Gaztetxo, Kadeteak, Gazteak eta Afizionatuak. Ezin izango da talde mistorik eratu, eta ezin izango dira elkarren aurka aritu sexu desberdineko jokalariak, Umetxo, Ume, Gaztetxo eta Kadete kategorietan izan ezik.

**96. ARTIKULUA Ofizialak**

Esparru lurraldeko txapelketa ofizial gisa, sailkapen hau dagokien Batzorde Orokorrek erabakita lortu dituztenak eta dagokien Txapelketa planaren barne daudenak kontsideratzen dira.

**97. ARTIKULUA Taldeak**

Puntu-txapelketa batean, maila berbera osatzen duten taldeen kopuru handiak horrela suertatzen baldin badu, taldeak talde desberdinetan bananduko dira.

**98. ARTIKULUA Garapen Modalitateak**

1. Kanporaketa bitartez egiten diren txapelketak, partidu bakar batera edo bi partiduetara jolastu ahal izango dira, bai zelai neutralean bai partidua jolasten duten bi taldeen zelai batean.

2. Puntuen bitartez jolasten diren txapelketak berriz, denal denen kontra, buelta batera edo gehiagora jolastuko dira. Buelta batera jolastuko balira, partiduak zelai neutralean jolastu daitezke edo, zozketa bitartez erabakita, jolasten duten bi taldeen zelai batean.

Bi bueltetara jolastuko balira, klub bakoitzat etxean bezain partidu jolastu beharko lituzke kanpoan.

Bi buelta baino gehiagotara jolastuko balira, buelta kopurua parea izango balitz, aurreko pasartean finkatzen denaren arabera jolastuko da; parea izango ez balitz, buelta ezparea, artikulu honen 1. puntuaren 2. atalean zehaztutakoaren arabera jolastuko da.

3. Hiru batean deituriko sistemaren arabera egiten direnak egun batean ala hirutan egin ahal izango dira, batean bada, partiduak zelai neutroan edo zozketaz hautatuz lehiakideetako batenean jokatu ahal izango dira.

4. FVF-BFFk, egoera bereziak ematen direla eta, eta jolastu behar duten bi klubetako batek eskatuta, bestearen baimenarekin, partidu konkretu bat aurreratu ala atzeratu dedila baimendu dezake, beti ere egutegi ofizialean ezarritako beste partiduen ordena aldatzen ez baldin bada, noski.

5. Jardunaldi ofiziala igandeetan ezarrita duten klub Futbol Afizionatuetako klub antolatzaileek larunbat arratsaldeetara aurreratu ahal izango dituzte partiduak,

15:30etatik aurrera, aurkakoen adostasuna izateko beharrik gabe.Kontrako taldearen adostasuna edukiz, Ostiral arratsaldeetan eta FVF-BFFko eskudun organuen aurretizko baimenarekin.

6. Gainerako kategorietarako, klub antolatzaileek, igandez ezarritako jardunaldi ofiziala duten klubek, euren norgehiagokak larunbatetara aurreratu ahal izango dituzte 09:00etatik aurrera, kontrakoaren adostasunik gabe, baita ostiral arratsaldeetan ere, aurkako taldearen adostasunarekin eta BFF-FVFko organo eskudunen aldez aurreko baimenarekin.

7. Arbitraje-beharrak direla-eta, BFF-FVFk igandean jokatzeko betebeharra ezarri ahal izango du.

**99. ARTIKULUA Egutegia**

1. Txapeketa baten partiduen ordena zozketa bitartez erabakiko da. Zozketa honetan, horrela eskatuko balute, herrialde bereko edo gertuko, eta ordezko, kluben arteko kointzidentzia ahal den moduan ekidintzen saiatuko da.

2. Egutegia finkatu eta gero, ezin izango da aldatu. Ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan, BFF-FVFren Zuzendaritza Batzordeak uko egiteen edo bestelako zirkunstantzien aurrean beharrezkoak diren doikuntzak egin ahal izango ditu lehiaketa guztietan.

## VI TITULUA

## FUTBOLARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA

**100. ARTIKULUA Lizentzia Kopurua**

Klub-ek, kategori edo maila ezberdinetan kokatuta dauden talde bakoitzeko gehienez hogeitabost futbolari inskriba ditzazkete, zenbateko horretan edozein lizentzia kontutan izanik. Kopuru hau, Batzar Orokorrak aladatu dezake eta mailari dagokion zirkularrean publikatuko da.

**101. ARTIKULUA Partiduetan jokalariek parte hartzeko (jokatu) baldintza orokorrak**

Jokalari baten hamaika ulertzen da partida batean, bere jokaera edo parte-hartze eraginkorra denean, bai titularra izateagatik, bai beste jokalari bat ordezkatzen duenean, bere partaidetza denbora eraginkorraren independentziarekin.

1. Futbolariak txapelketa ofizialetan jokatu dezaten, derrigorrez bete beharreko baldintzak ondoko hauek dira:

a) Gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago lortutako lizentzia izatea, lerrokatzen den klubari dagokion lehiaketako azken bost jardunaldietako/datetako lehena jokatzea dagokion eguna baino lehen.

b)Txapelketak bost data baino gutxiago izango balitu, mugapen hau lehenengora ezarriko zaio.

c) Fase desbedinetan diarduen txapelketa bat, txapelketa bakar bat bezala hartuko da.

d) Bere adina indarrean dauden xedapenek finkatutakoarekin bat izan dedila.

e) Futbola jolasteko gai deklaratua izan dedila.

f) Egun berean, federakor erakundeak kontrolatutako partiduetan zerrendan sartu ez izana.

g) Eskudun diziplina organoak ezarritako zigorpean ez egotea.

h) Parte hartuko duten eta partidua hasi baino lehen arbitroari emango zaion jokalarien zerrendan egotea, bai titular bai ordezko gisa, honek aktan konsigna dezan. Hau beteko ez balitz ezin izango da zuzendu partidan zehar eta amaitu ondoren. Aurrekoan aipatutako betebeharen baten ez balego jokalariak ezin izango luke partidan jokatu
2. Bere klubaren partidu ofizialetan parte hartu duen futbolariak eta denboraldi berean beste batean inskribatzen dena, bertan parte hartuz, jatorrizkoarekin ezin izango da sei hilabete igaro arte edo denboraldiaren bukaera iritxi arte zelairatu; bukaerarako denbora hori baino gehiago geldituko balitz, epea lehenengo lizentzia indargabetzen den egunetik zenbatzen hasiko da. Jokalariak lizentzia berri edo gehiago lortuko balitu, galerazpen berbera zuzenduko da lehenengotik eta azkenekoarekin izenematea izan duen talde guztietara.

3. Federakor Organoek, bereziki finkatzen dituzten beste betebehar guztiak betetzea.

4. Artikulu honetan zehazten diren xedapen guztien betetzeak, ez die ordezko edo azpitaldeetarako finkatuta dauden klub edo K.E.ekiko arauei kalterik egingo.

**102. ARTIKULUA Klub Aldaketa**

Futbolariak, denboraldi berberaren barnean, lizentzia lortu eta jatorrizkoa ez den beste klub desberdin batekin zelairatu daitezke, beti ere hasierako konpromezua bukatutzat emanik.

Mugatu egiten da denboraldi batean futbolari batek izena eman eta hiru klub baino gehiagotan parte hartu ahal izatea.

**103. ARTIKULUA Taldeak Maila Ezberdinetan**

Klub batek maila ezberdinetan taldeak dituenean, maila goreneko lizentzia duten jokalariek, honetan baja emon ezkero eta maila beheragoko lizentzia egin, ezin izan dira berriz goiko taldean alineatuak izan, salbuespen batekin jokalariak epe luzerako lesioa edukitzea, honetzat ulertuko da bi hilabete baino gutxiago ez duten lesioak, eta bere alta beheragoko taldean bere errekuperaziorako denean.

Behin bakarrik goragoko taldean alineatu ezkero, ezin izango dira berriz beheragoko taldean alineatuak izan.

Klub bateko jokalariak goragoko taldeko lizentzia badute eta baja eman ezkero, beheragoko taldearekin lizentzia formaduz, ezin izango dira alineatu jatorrizko taldean.

**104. ARTIKULUA Aldaketak**

1. Txapelketa ofizialetako partiduetan, edozein maila izanda ere, ordezko zazpi jokalarien artean, gehienez, bost ordezkaketa egin daitezke; arbitroak partidua hasi baino lehen, lehenengo hauen izenak, titularrarenak bezala, jakin behar ditu edo maila ezberdinetan Batzar Orokorrak aurretik erabakita ldaketak.

Jokua geldituta dagoenean, edozein aldaketa egin nahi denean, ordezkariak eta halakorik ezean, kapitainak arbitroari aldaketa egiteko baimena eskatuko dio; arbitroak baimenik ematen ez baldin badu, ezingo da aldaketarik egin. Behin aldaketa egin eta gero, ordezkatua izan den jokalaria ezin izango du berriz partidu horretan parte hartu.

BFF-FVFak, bere lurraldeko txapelketetan, ordezkaketa kopuru handiagoeta txikiagoak baimendu ditzazkete.

2. Adiskidantzako partiduetan parte hartzen duten klub desberdinek nahi dituzten aldaketa guztiak egin ditzazkete, aldez aurretik, hau da, partidua hasi baino lehen horretarako akordioa egonik eta arbitroa jakinaren gainean jarri eta gero; akordiorik egongo ez balitz, aurreko puntuan zehaztutakoa errespetatuko da.

3. Ezingo da, inola ere ez, partidua hasi eta gero arbitroak zelaitik kanpo bidali duen jokalari bat ordezkatu.

## VII TITULUA

## IRABAZLE IZAN DIREN KLUB EDO KIROL ELKARTEEN ETA AZKEN SAILKAPENAREN DETERMINAKETA

### 105. ARTIKULUA Puntu Sistema

1. Puntu-sistemaren bidez egiten diren txapelketetan, azken sailkapena parte hartu duten klub desberdinek lortutako puntuen arabera egingo da, irabazitako partidu bakoitzeko hiru puntu emanik, bat berdinketagaitik eta bat ere ez galtzeagaitik.

2. Txapelketa bukatzerakoan bi klubek puntu berdinketa lortuko balute, bere alde gol gehien dituenak irabaziko luke, beraien artean jolastutako bi partiduetan bakoitzak alde eta kontra dituen golen zenbaketa egin eta gero. Modu honetan konponduko ez balitz, irabazlea bere alde gol gehien dituen taldea izango da baina txapelketa osoan zehar alde eta kontra dituzten gol guztien zenbaketa egin eta gero; diferentzia berdina izango balitz, gol gehien sartu dituen taldea izango litzateke garaile.

3. Berdinketa bi kluben artean izango balitz, irabazlea modu honetan hautatuko litzateke:

a) Puntuaketa hobea lortu duenaren arabera; besteek parte hartu izan ez balute bezala, beraien artean jokatutako partiduetan sailkapen hobea lortu duen eta ondorioz, puntu gehien lortu dituenak.

b) Alde eta kontrako golen diferentzia handiena lortu duenaren arabera; berdinketa duten klubek elkarren kontra jokatutako partiduetan alde eta kontrako golen diferentzia handiena lortu duenak.

c) Sartutako eta jasotako golak kontutan harturik, txapelketaren partidu guztietan, gol diferentzia handiena lortu duenaren arabera; diferentzia berdina izango balitz, gol gehien sartu dituen klubek irabaziko luke.

Aurreko pasarteak zehazten dituen araudiak ordenu honetan eta eliminaketa bitartez aplikatuko dira; modu honetan, hauetako batek sartutako kluben arteko berdinketa konponduko balu, azken hau alde batera utziko da eta gelditzen diren besteei, bi edo gehiago diren arabera, dagokizkien moduan aplikatzen jarraituko zaizkie.

4. Txapelketa buelta batera edo hirura edo hiru batean deituriko sistemaren arabera jokatu izan balitz eta azken sailkapenean bi klub edo K.E. baino gehiagoren arteko puntu berdinketa egongo balitz, garailea modu honetan erabakiko da:

a) Txapelketaren partidu guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.

b) Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.

c) Elkarren artean jolastutako partiduen emaitzaren arabera.

5. Berdinketa artikulu honetan finkatzen diren xedapenen bitartez konponduko ez balitz, eskudun txapelketa organoak erabakitako egun, ordu eta zelai neutralean, desberdinketa partidu bat jolastuko litzateke, bertan, hurrengo artikuluak zehazten dituen xedapenak aplikatuz.

**106. ARTIKULUA Kanporaketa Sistema**

1. Kanporaketa sistemaren bitartez bi partiduetara jolasten diren txapelketetan, partidu bietan jasotako eta sartutako golak kontutan harturik, alde gol diferentzia handiena lortu duen taldeak irabaziko du.

2. Goleko berdinketarik egonez gero, hogeita hamar minutuko luzapena egingo da, hamabosteko bi denboratan, bost atsedenaldirekin banatuta, eta zelaia aukeratzeko zozketa egingo da, goleko balizko berdinketa talde bisitariaren alde argitzeari buruzko araua aplikatuko dela ulertuta.

Luzapena bukatu eta gero markagailuan berdinketa jarraituko balu, talde bakoitzak bost penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero besteak, horrela talde bakoitzak dagokizkion bostak jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabaslea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalari desberdinek jaurti beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bost jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalari batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Jaurtiketa hauek aurreko luzapena bukatu eta gero zelaiean gelditzen ziren jokalariek bakarrik egin ditzazkete, edozeinek atezaina ordezkatzeko posibilitatea izanik.

4. Kanporaketa sistemaren bitartez egiten den txapelketa batean txapeldun titulua, maila igoera edo jaitsiera zeinek lortuko ote duen jakiteko azkeneko partidua jolasten denean, edo berdinketa egoera bat argitzeko jolasten den gehigarrizko partidu batean, aurreko puntuan zehazten den formula berbera erabiliko da hemen ere.

5. Emakume, kadete eta beheragoko kategorietan berdinketa ematen denean, ez da 3. atalean finkatzen den luzapena jolastuko, zuzenki penalti jaurtiketetara joan beharko da.

**VIII TITULUA**

## PARTIDUEN ESEKIDURA

### 107. ARTIKULUA Partiduen Esekidura Arrazoiak

1. Arbitro batek partidua ondoko zergatiengaitik bakarrik eseki dezake:

a) Joku-zelaiaren egoera txarra.

b) Bi lehiakideetako baten ez-agertzea.

c) Liburu honek zehazten duen moduan, bai hasiera batean bai ondoren, talde baten jokalari zenbateko gutxigotasuna.

d) Jendeak eragindako gora-beherak.

e) Bihurkeria, erretiraketa edo falta kolektiboa.

f) Ezinbesteko kasu batean.

g) Partidua hasita badago epaileak partidua eseki ahal izateko aurreko kasuak eman beharko dira, edo jolastu ezina den eguraldia egotea edo zelaiaren alterazio nabariak egoteagatik.

Dena dela, arbitroak, bere erizpide onaren arabera, neurtuko ditu aipatutako zirkunstantziak, partidua jolastu edo jarraitu dezala ahal den moduan ahaleginduz.

2. Aparteko egoerak direla eta, bai FVF-BFFk, edozein partidu eseki-tzeko ahalmena dute.

### 108. ARTIKULUA Partiduen Ospakizuna Geroagoko Datan

Ezinbesteko kausak direla eta, partidua hasi eta gero esekituko balitz, eskudun Jurisdikzio eta Diziplinarako Batzordeak erabakitzen duenean jarraipena emango zaio, arauzko atalen arabera beste edozein pronuntziamendu hartu izan ezik.

Klub lehiakideek, ados jarrita, partida zein egun eta ordutan egin edo jarraitu behar den zehaztu ahal izango dute, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, betiere araudia betetzen bada; adostasunik ez bada, eskumena duen organiak ebatziko du.

### 109. ARTIKULUA  Bertan behera utzitako partiduetan jokalariak sartzea

1. Esekidura kasu bat dela eta, behin hasitako partidu bat data berri batean jarraipena eman behar baldin bazaio, jarraipen honetan, partidua eman zen egunean bi kluben izenean lizentzia zuten jokalariek bakarrik parte har dezakete, nahiz eta partidu hartan zerrendatuta egon ala ez, eta jolastu izanik ordezkatuta izan ez direnak edo partidu hura dela eta, diziplina organoak gero zigortu ez dituen jokalariak, partidu horren ondorioz ohar pilaketa dela eta izan ezik.

Gainera, Liburu honen 101 artikuluaren 1go atalaren e) eta f) puntuak eman beharko lirateke.

2. Jokalarirenbat kanporatu izango balitz, bere taldeak kanporaketa eta gero zituen jokalari kopuru berdina bakarrik zelairatu ahal izango du; baimendutako ordezkaketa guztiak egin izan balira, ezin izango da beste ordezkaketarik egin.

## IX TITULUA

## BESTE SUJETU PARTEHARTZAILEAK

### 110. ARTIKULUA Zelai Ordezkaria

1. Futbol zelaiaren titularra den klubek, partidu bakoitzerako zelai-ordezkari bat izendatu beharko du, ondoko betebeharrak bere eginkizun izanik:

a) Arbitroaren esku egon eta honek partidua baino lehen edo partidua aurrera doan einean eman dizkion aginduak bete.

b) Kontrako taldearen ordezkariari bere lankidetasuna eskaini.

c) Zelaia mugatzen duten marren eta jendea bertatik banantzen duen hersgunearen arteko hutsunean, baimenduta ez dauden pertsonak egon daitezela galerazi.

d) Kazetariak, argazkilariak eta telebista operatzaileak behar den bezala kreditatuta eta identifikatuta egon daitezela, eta arauzko distantziara jartzen direla egiaztatu.

e) Taldeak, zelaia guztiz garbia egon arte bertara atera ez daitezela arduratu.

f) Aldageletara 90. artikuluan zehazten diren pertsonaz gain beste edozein sartu ez dedila arduratu, batez ere, arbitroaren aldagelara, berak baimendu izan ezik, federakor ordezkaria ez baldin bada, eta akta firma dezaten, entrenatzaile eta kapitainak izan ezik.

g) Ustekaberik egon ez dedin, indar publikoarekin lan egin.

h) Jendea, arbitro, futbolari, entrenatzaile eta ordezkoentzat prestatuna dagoen pasagunean jar ez dedila saiatu, ez eta aldagelen aurrean ere.

i) Partiduaren bi denborak bukatu eta gero, arbitroarekin azken honen aldagelara joan eta modu berean, ustakaberenbat gertatzen denean edo jendearen jarrerak izan daitezkeela erakusten duenean, babespen arazorik egon ez dadin, zelaitik behar den lekura berarekin joan.

j) Zirkunstantziek horrela aholkatzen dutenean, bere ekimenez edo arbitroak hala eskatuta, indar publikoaren babesa eskatu.

2. Zelai-ordezkariaren izendapena zu-zendaritzako pertsona batean eroriko da, klubaren Presidentea izan ezik edo klubeko enplegatu edo bazkideak. kargu hau duen pertsonak, bere kondizioa kreditatzen duen besoko ikusgai bat eraman beharko du.

3. Zelaiko ordezkariak taldeko ordezkari bezala aritu daiteke, federazioko kidea dena ezin izango du ordezkari bezala egin.

### 111. ARTIKULUA Kluben Ordezkariak

Bai klub bisitatzailea bai lekukoak zelai-ordezkari bat izendatu beharko dute. Ordezkari hau taldearen errepresentatzailea izango da zelaitik kanpo eta beste funtzioren artean, honako hauek bete beharko ditu:

a) Futbolariak partidua baino lehen, bitartean eta bukatu eta gero ahal den deportibitate

eta zuzentasun handiagorekin jokatu dezaten irakatsi.

b) Partidua hasi baino berrogei minutu lehenago, arbitroaren aurrean identifikatu eta partidua jokatu behar duten eta ordezko bezala geldituko diren bere taldeko jokalarien lizentzia, zenbakituak, aurkeztu.

c) Arbitrai eskubideak ordaindu daitezela arduratu, beste sistemna bat ezarri ezean.

d) Partidua bukatu eta gero, dagokion akta sinatu, on line akata izan ezik. Partidua hasi baino lehen, talde bakoitzeko delegatua bere taldearen zelairaketa berrikusi eta onartuko du eta akatzen bata badago zuzentzeko eskaera egingo du.

e) Partidua baino lehen, bitartean edo bukaeran gertatuko edozein gertakizun arbitroaren jakinaren gainean jarri.

f) Arbitroari edozein ordezkapen egiteko baimena eskatzea eta berdegunean irten eta sartzen diren jokalarien zenbakiak adieraztea.

g) 4º arbitroa ez dagoenean, arbitroak edo bertaratutako arbitroak hala aginduta, lehiakideei eta publikoari partidaren zati bakoitzaren luzapen-denbora erakustea.

Delegatuak ezin izango dute jokarariei zuzendu edota aginduak eman, Entrenatzailearen funtzioak eginez.

**112. ARTIKULUA Federakor Ordezkaria**

Federakor Ordezkaria, Federakundearen errepresentazioa izanik, partiduaren igarotzearen gainbegiraketaz arduratzen den pertsona da. Partiduan parte hartzen duten estamentu guztietatik bere funtzioa aurrera eramateko behar duen informazio guztia lor dezake, federakor araudien betetze aproposa exigituz.

**113. ARTIKULUA Talde Kapitainak**

Kapitaina, zelai barnean, taldearen errepresentazio baimendu bakarra da eta berari dagokizkio ondoko eskubide eta betebeharrak:

a) Partidua jolasten ari den einean, bere kideei behar bezain instrukzio eman.

b) Bere kideek behar bezalako zuzenketa erakuts dezaten ahalegindu.

c) Arbitroaren instrukzioak beterazi, bere babestasuna arriskuan jar ez dedila eta partidua normaltasun osoz aurrera joan eta bukatu dadin lagunduz.

d) Partidua hasi baino lehen, aktaren lehenengo partea sinatu, on line akta izan ezik.

e) Taldeko ordezkaririk ez dagoenez, edozein ordezkapen egiteko baimena eskatu behar zaio epaileari eta berdegunean irten eta sartzen diren jokalarien zenbakiak adierazi behar dira.

Bi kapitainetako batek ezetza emango balu, arbitroak, dilijentziaz, honela agertuko luke.

**114. ARTIKULUA Epailea Funtzioak**

1. Ordenu teknikoan, arbitroa da partiduak zuzentzeko kirol autoritate bakar eta apelaezina.

2. Bere fakultateak kirol barrutian sartzen denetik hasten dira eta bertatik atera arte ez ditu galtzen, beraz, atsedenaldietan, etenaldietan eta esekiduretan kon-tserbatu egiten ditu, nahiz eta baloia zelaiean ez egon.

3. Klubetako zuzenketakoek, bai futbolariek, entrenatzaileek, ordezkoek eta ordezkariek bere erabakiak bete behar dituzte eta beraien responsabilitatepean, bere funtzioaren ariketa dela eta, eta aktuazioaren independentzia segurtatzeko, arbitroari errespetoa eta integritate pertsonala zor diote, beti bere pertsona babestuz eta lagunduz, hau lortzeko ere indar publikoaren interbentzioa beharrezkoa baldin bada ere.

4. Partida hasi ondoren, arbitroari bere borondatez kanpoko arrazoi edo istripuren batengatik jarduteko ezintasuna gertatuko balitzaio, izendatutako bien artean goragoko arbitraje-kategoriari atxikita dagoen laguntzaileak ordezkatuko du, eta bestea arbitraje-kategoria gisa geratuko da; hala ere, printzipalaren ordezkoak, komenigarritzat jotzen badu eta bigarren laguntzaile gisa esku hartzen badu, kirol-instalazioak indarrean dauden federazio-akreditazioa duen edozein arbitro erabaki ahal izango du.

**115. ARTIKULUA Arbitroaren betebeharrak**

Arbitroaren betebehar dira:

1. Partida bat zuzentzeko izendatutako arbitraje-taldea gutxienez berrogeita bost minutu lehenago agertu beharko da zelaian.

2. Partida hasi aurretik:

a) Jokalekua ikuskatzea, haren egoera, lerroen markaketa, ateetako sareak eta, oro har, hark eta haren instalazioek bete behar dituzten arauzko baldintzak egiaztatzeko, eta zelai-ordezkariari behar diren jarraibideak ematea edozein akats konpon dezan. Era berean, instalaziora iristen denetik partida amaitu arte ureztatzea edo jokalekuan egiten den beste edozein jarduketa baimentzea dagokio.

Arbitroak, partidua jolasteko kondizio aproposak ez direla estimatu ezkero, nabarmen eta borondatezko aldaketa artifiziala dela eta, edo aldaketa ustegabeko kausa edo istripuren bat gertatu eta gero akatsak egoera normalean berrezartzeko beharraren ahanztea dela eta, partiduaren esekidura erabakiko du.

b) Zelaiaren egoera, inori inputatu ezin zaion akzio edo ahanzterengaitik edo eta indarrean dauden xedapenetan zehazten diren gainontzeko ustezkak direla eta, txarra denean, modu berean, partiduaren esekidura agindu.

c) Erabiliko diren baloiak ikuskatzea, arauzko baldintzak bete ditzaten exijituz eta zelaiko ordezkariari baloia jokalekutik ateratzen denean jarraitu beharreko prozedura aginduz, eta baloiek partidan jardun dezaketen baloiak jasoz.

d) Futbolari titularren eta ordezkoen lizentziak aztertzea, bai eta entrenatzaile eta laguntzaileenak ere, eta erantzukizuna izan dezaketen arauzko baldintzak betetzen ez dituztenei ohartaraztea; halaber, lehiakide diren klubetako ordezkariek eskatuta, aurkariaren lizentziak egiaztatzeko baimena ematea.
Lizentziaren baten faltarik izanez gero, dela jokalari batena, dela laguntzaile batena, arbitroak aktak jasoko ditu, eta NAN-aren identifikazioa jarriko du, doakionaren sinaduraz gain.

e) Bi taldeetako entrenatzaile eta kapitanei, beraien taldeetako jokalariek partiduan zehar zuzentasun eta deportibitate osoz jokatu dezaten, behar diren oharpenak egin.

f) Taldeen zelairaketa agindu.

g) Partidak ezarritako orduan has daitezen zaintzea; eta partidari dagokion aktaren bidez diziplinazko organoari jakinaraztea garaiz ez agertzearen arrazoiak zein izan diren.
3. Partiduan zehar:

a) Jokuaren araudiak aplikatu, partidua aurrera doan einean hartzen dituen erabakiak apelaezinak izanik.

b) Gerta daitezkeen izaera guztietako gorabehera guztiak kontutan hartu.

c) Kronometratzaile eginkizuna aurrera eraman, zati bakoitzaren, eta izan ezkero, baita luzapenen hasiera eta bukaera, eta etenaldien kasuan jokoaren berrekitea seinalatu, edozein kausa dela eta gerta daitezkeen denbora galtzeak nolabait konpentsatuz.

d) Araudiak hausten direnean, partidua gelditu eta aurrikusitako kasuak eman ezkero, esekitu, beti ere azkeneko eta beharrezko errekurtsoa izanik.

e) Faltaren garrantzia kontutan izanik, behar ez bezalako jokaera edo jokamodua duen jokalari, entrenatzaile, laguntzaile edo arauz ukitu daitezkeen gainontzeko pertsona guztiei kargu hartu edo kanporatu.

f) Futbolarien kasuan, jokoan esku hartzen ari diren ala ordezko edo ordezko izan, kargu hartzea edo kanporatzea txartel horia edo gorria erakutsiz egingo da, hurrenez hurren.

g) Entrenatzaileen, laguntzaileen eta arauz eragindako gainerako pertsonen kasuan, epaileak era berean erakutsiko du txartel horia edo gorria.

h) Hogeita bi futbolariak eta bertaratutako arbitroak egonez gero, laugarren arbitroa ez diren beste pertsona batzuk jokalekuan sartzea debekatzea, haien baimenik gabe.

i) Jokalariren bat lesionatzen denean jokoa etetea, garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste duenean, eta aulkiko pertsonek medikuntzari eta/edo erizaintzari buruzko ezagutzak dituztenean berdegunera joatea baimentzea. Larritasun-kasuetan, arbitroak gaiari buruzko ezagutzak dituzten eta partidara bertaratzen diren pertsonen laguntza eskatu ahal izango du. Azkenik, beharrezkoa izanez gero, sorotik kentzeko aginduko du osasun-laguntzen bidez.

j) Jokalekuaren perimetrorako bilketak dituzten partidetan, jokalekuak bertan egon daitezen zaintzea, arreta berarekin, partida osoan zehar, eta tokiko kluba izango da betebehar hori betetzean sortutako edozein akats edo zabarkeriaren erantzule, baita epaileak partida hasi aurretik emandako jarraibideak ez betetzearen erantzule ere.

4. Partidua bukatu eta gero:

a) Lehian aritu ziren klubetako edo K.E.-etarako ordezkari bakoitzari jokoan zehar izandako lesioei buruzko txostenak eskatzea eta, hala bada, mediku-ziurtagiriak eskatzea, aktari eransteko.

b) Topaketaren akta leial, zehatz, argi, objektibo eta osorik idaztea, bai eta egokitzat

jotzen dituen zabaltze-txostenak ere, eta ahalik eta azkarren eta prozedura azkarrena erabiliz, eskumena duten erakunde eta organismoei bidaltzea.

## X TITULUA

## AKTAK

### 116. ARTIKULUA Epai Aktak

1. Akta da partidu batean izandako gertakizun eta gorabeherak aztertzeko, kalifikatzeko eta zigortzeko beharrezkoa gertatzen den dokumentua.

2. Gorputz bakarra izango da eta arbitroak, bertan, ondoko puntuak zehaztu beharko ditu:

a) Partidua jokatzen den eguna eta lekua, zelaiaren izena, parte hartzen duten kluben izenak eta txapelketa moeta.

b) Hasieratik parte hartzen duten jokalari titular eta ordezkoen izenak, bakoitzak daraman zenbakia zehaztuz, eta entrenatzaileen, laguntzaileen, klubetako ordezkarien, bai partidukoak bai zelaikoak, bertaratutako arbitroena eta berarena ere.
Kluben ordezkariek adierazi ahal izango dute jasota dagoela partidan zehar gertatutako edozein gorabehera edo irregulartasun. On line aktan epaileak adieraziko du, oharrei dagokien lekuan.

c) Partiduaren emaitza, golak sartu dituzten jokalarien izenak aipatuz.

d) Izandako jokalari ordezkaketak, azken hauek burutu diren momentua zehaztuz.

e) Hartutako kargu edo egindako kanporaketak, zergatiak argi azalduz, baina motibatutako gertakizunak kalifikatu gabe, eta infrakziolariaren izena, dorsala eta gertakizuna gertatutako minutua aipatuz.

f) Zelai barnean edo kirol instalakuntzetan, edo kanpo, partidua hasi baino lehen, bitartean edo bukatutakoan gertatutako beste edozein gertakizunen zehazpena, beti ere gertakizunak ikusi edo arbitro-taldeko edozein kideek ikusita bere jakinarenpean jarri izan balitu.

g) Bete beharreko kondizioak kontutan edukirik, zelaiean eta instalakuntzetan somatutako akatsen zehazpena.

h) Jokalari, entrenatzaile edo auxiliar baten lizentziaren inguruan dudak egon ezkero, aktan idatziko ditu izen abizenak, euren sinadurarekin, bere aurrean egina, berdin jokatuz, lizentzia ahaztu, galdu edo falta bazaio.

i) Apropos iruditzen zaion beste edozein oharpen.

### 117. ARTIKULUA Epai Akataren Sinadura

1. Partidua hasi baino lehen, aktan, aurreko artikuluaren a) eta b) atalak diotena konsignatuko da eta, ondoren, bi kapitainek eta bi entrenatzaileek sinatuko dute. Partidua bukatu eta gero, bertan manamendu berberaren gainontzeko ataletan zehazten diren xehetasun guztiak osatuko dira eta arbitroak eta partiduan parte

hartutako klubetako ordezkariek sinatuko dute.

2. Akta originala Federakunde antolatzailearentzat izango da eta kopiak partiduan parte hartutako bi klubentzat eta dagokion Arbitro Batzorde Teknikoarentzat.

**118. ARTIKULUA Aktaren Kopien Banaketa**

Behin partidua bukatu eta akta formaldu eta gero, arbitroak, klub bakoitzaren ordezkariei aktaren kopia bana bananduko die edo telematikoki bidali eta originala Federakunde antolatzaileari bidaliko dio; akta hau Federakundearen eskuetan partidua jokatu eta hurrengo lan egunaren arratsaldeko zortziak baino lehen egon beharko luke.

**119. ARTIKULUA Epai Aktaren Gehikuntza**

Behin behineko egoerek horrela kontseilatzen dutenean, inguruabar bereziek hala eskatzen dutenean, partida bukatutakoan arbitroak ez badu akta ematen, partida antolatu duen Federakundeari eman beharko dio partidaren ondorengo eguneko arratsaldeko bostak baino lehen. Epe horretan ere akta bidali beharko die lehian aritutako talde biei.
Halaber,eta aktatik bereizita, arbitroak dagozkion txosten osagarriak egin ahalko ditu. Kasu horretan txosten horiek bidali beharko dizkio partida antolatu duen federakundeari eta klub biei.

## XI TITULUA

## BAIMEN FEDERATIBOAK

**120. ARTIKULUA Baimen fedaratiboak**

1.FVF-BFF-aren baimen expresua beharrezkoa izango da, bere eskuduntzen arabera, edozein motatako partidu, txapelketa edo ekintza antolatzeko, zeinetan klubek, jokalariak, epaileak edo entrenatzaile federatuak parte hartzen duten, baita lagunarteko izaera dutenak.

Baimen hori, antolatzen diren txapelketen eta egunaren zirskuntazien menpe geratuko da, egutegi ofizialaren ihardunaldiarekin ez koinziditzeko.

2. Baimenak bost eguneko epeaz gutxienez eskatu beharko dira, FVF-BFFari.

## XII TITULUA

## FUTBOL SELEKZIOA

**121. ARTIKULUA Bizkaiko Selekzioak**

1. FVF-BFF da Bizkaiko Futbol Selekzioa bere kategori desberdinetan eratzeko eskubide bakarra duena.

2. Klubek beraien lankidetasuna eta instalakuntzak uztera behartuta daude eta, inongo kontraprestamenik jaso gabe deituta izan diren beraien taldeetako jokalariak lagatzera.

3. Futbolariak, estatu esparruko txapelketetan parte hartzeko edo azken hauek prestatzeko, selekzioen deialdietara joatera behartuta daude.

Horretarako ezarritako epean bertan behera geratuko dira euren klubari dagozkion zuzentza eta kontrol eskumenak, eta baita harekin lotutako obligazio eta ardurak ere.

4. Jokalariak, beraien hautatu egoerak ezartzen dizkien betebeharrak bete beharko dituzte, federakor organismoak finkatzen dituen diziplina arauen barne mantenduaz.

5. Beharrezkoa kontsideratzen duen bakoitzean eta nahi dituen egunetan, FVF-BFFk, aldez aurretik selekzionatuta dauden futbolariekin apropos estimatzen dituen kontzentrazio, prestaketa aprobak edo entrenamenduak egin ditzazke.

6. FVF-BFFko Zuzendaritza Batzordeak, kategoria desberdinentzat beharrezko iruditzen zaizkion hautesleak izendatuko ditu.

7. Futbolari bat selekzionatua denean, FVF-BFFk, kasu desberdinen arabera, bere kluba aurrerapen nahikoarekin aurkeztu beharreko eguna eta lekuaren, konzentrazio, desplazamendu eta bidai planarekin bat doazen instrukzio guztien jakinaren gainean jarriko du.

8. Deitutako futbolariek dagokien hauteslearen edo eskudun federakor pertsonalaren partetik jasotako instrukzio guztiak bete beharko dituzte.

FVF-BFF-k eskuratzen dizkien arropak eta garraiobideak erabiltzera beharturik daude.

9. Selekzionatutako futbolariak, edozein momentutan, beraien portaera, bai indibiduala bai kolektiboa, daramaten errepresentazio bereziarekin bat izan dedila zainduko dute eta, beti, jendaurreko ordenu, diziplina, jarrera eta deportibitate exenplua eman beharko dute.

## IV LIBURUA

## BIZKAIKO KIROL TEKNIKOEN BATZORDEA

### 122. ARTIKULUA Definizioa

Bizkaiko Kirol Teknikoen Batzordea (B.K.T.B.), afiliazioa formaldu duten entrenatzaileek osatzen dute; modu berean, zuzendaritza funtzioak, funtzio teknikoak edo erakuntza eta jokabide hobezinerako bestelako eginkizunak betetzen dituztenek.

### 123. ARTIKULUA Araudia

B.K.T.B.-ak, FVF-BFFren eta Arautegi honen Estatutuen arabera jokatzen du, eta bere barne erregimenari dagokionez, FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordeak onetsitako arauen arabera.

### 124. ARTIKULUA Funtzioak

B.K.T.B.ri dagokio, FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordearen menpe, bere Erakundearen administralgo eta gobernua, eta azken hauen errepresentazioa FVF-BFFn.

### 125. ARTIKULUA Osaketa

B.K.T.B. gutxienez, presidenta, idazkatia eta hiru bokal edukiko ditu.

Presidentea, FVF-BFF-ko Estatutuetan ezarritakoaren arabera aukeratua izango da.

**126. ARTIKULUA Presidentea**

B.K.T.B.ko Presidenteak, bere batzarreen deialdiak egin, hauen buru izan eta akordioak betearazten ditu. Berdinketa kasuan, bere botua kalitatezkoa izango da.

Presidente kargua entrenatzaile aritze aktiboarekin bateraezina izango da, beraz, egoera hau emanik, eta kargu jabetza hartu baino lehen, interesatuak entrenatzaile kargua utzi beharko du.

**127. ARTIKULUA Eskuduntzak**

B.K.T.B.ri, FVF-BFFren Estatutuetan zehazten diren konpetentziez gain, ondorengo hauek dagokizkio:

a) Liburu honen 1go artikuluan zehazten diren betebehar guztiak betetzen dituzten entrenatzaile guztiak afiliatu.

b) BFF-FVFren Zuzendaritza Batzordearen eginkizunei kalterik egin gabe, Erakundea gobernatu, administratu eta errepresentatu.

c) BFF-FVFri bere afiliatuek dituzten galdera guztien berri eman.

d) BFF-FVFri, entrenatzaileen eta kirol-teknikarien hobakuntza eta gaurkotze aproba edo ikastaro deialdiak egin daitezen proposatu.

e) Barne erregimeneko araudien arabera, dagokizkien erabakiak hartu.

f) Delegazioz, Entrenatzaile Batzorde Nazionalak ematen dizkionak, BFF-FVFaren aurretiazko onarpenaz.

## V LIBURUA

## BIZKAIKO ARBITROEN BATZORDEA

**128. ARTIKULUA Definizioa**

Bizkaiko Arbitroen Batzordea (B.A.B.),bere bitartez afiliazioa formaldu duten arbitroek osatzen dute; modu berean, zuzendaritza funtzioak, funtzio teknikoak edo erakuntza eta jokabide hobezinerako bestelako eginkizunak betetzen dituztenek.

**129. ARTIKULUA Araudia**

B.A.B.k, FVF-BFFren eta Arautegi honen Estatutuen arabera jokatzen du, eta bere barne erregimenari dagokionez, FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordeak onetsitako arauen arabera.

**130. ARTIKULUA Funtzioak**

B.A.Bri dagokio, FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordearen menpe, bere Erakundearen

administralgo eta gobernua, eta azken hauen errepresentazioa FVF-BFFn.

**131. ARTIKULUA Osaketa**

B.A.B., gutxienez, Presidente batek, Idazkari batek eta bost batzordekideek osatuko dute, guztien artean Presidenteorde bat izendatuz.

B.A.B.ko Presidentea FVF-BFFren Estatutuetan finkatzen denaren arabera izendatua izango da.

Batzorde horren eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

a) EABren funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzea.

b) EABren Zuzendaritza Batzaren zirkularrak onartzea.

c) Arbitroei dagozkien jarduketak koordinatzea EABren barruan.

d) Erkidego nahiz Estatuko organoei zuzendutako proposamenak eta komunikazioak onartzea.

**132. ARTIKULUA Presidentea**

B.A.B.ko Presidenteak, bere batzarreen deialdiak egin, hauen buru izan eta akordioakbetearazten ditu. Berdinketa kasuan, bere botua kalitatezkoa izango da.

Presidente kargua arbitro aritze aktiboarekin bateraezina izango da, beraz, egoera hau emanik, eta kargu jabetza hartubaino lehen, interesatuak arbitro izateari utzi beharko du.

**133. ARTIKULUA Eskuduntzak**

B.A.B.ri, FVF-BFFren Estatutuetan zehazten diren konpetentziez gain, ondorengo hauek dagokizkio:

a) FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordearen eginkizunei kalterik egin gabe, Erakundea gobernatu, administratu eta errepresentatu.

b) FVF-BFFk antolatutako eta ordezkatutako txapelketetan parte hartuko duten arbitroen izendatzea.

c) FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordeari, bere konpetentzia diren arbitroen sailkapen erizpide eta arauak proposatu eta dagokizkion igoera ikastaroen antolaketa.

d) FVF-BFFri, arbitroen hobakuntza eta gaurkotze aproba edo ikastaro deialdiak egin daitezen proposatu.

e) Barne erregimeneko araudien arabera, dagokizkien erabakiak hartu.

**134. ARTIKULUA Epaileen Kategoriak**

Arbitro kategoriak dira, indarrean dauden xedapen legalak eta arauzkoak finkatzen dituztenak.

**135. ARTIKULUA Epaile Kategoriak**

Kategoria arbitralak FVF-BFFk erregulatzen dituenak izango dira.

**136. ARTIKULUA Barne Erregimena**

B.A.B.k apropos edo beharrezko ikusten dituen eta FVF-BFFren Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharko dituen, barne erregimeneko instrukzioak edo ordenuak dikta daitezela proposa dezake; Onetsi hori lortu eta gero, zirkular baten bitartez argitaratuko dira.

## VI LIBURUA

## ARETO FUTBOLEKO BIZKAIKO BATZORDEAREN

**137.ARTIKULUA Definizioa**

1. Areto Futboleko Bizkaiko Batzordea BFF-FVFren organoa da, eta hari dagokio areto-futbola sustatzea, kudeatzea, antolatzea eta zuzentzea.

2.Bere helburuak betetzeko, honako eginkizun hauek beteko ditu, BFF-FVFak eskuordetuta:

a) Areto Futboleko lurralde-izaerako kirol-jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatzea, arautzea eta antolatzea.

b) Erregelamendu honetan bere organoei agintzen zaizkien guztiak.

**138. ARTIKULUA Organoak**

1. Honako hauek dira Areto Futboleko Bizkaiko Batzordearen gobernu-organoak:

a) Lehendakaria

b) Zuzendaritza Batzordea

2. Hauek dira organo teknikoak:

a) Areto Futboleko Arbitroen Batzordea.

**139. ARTIKULUA Lehendakaria**

Bizkaiko Areto Futboleko Batzordeko lehendakaria haren ordezkaria da, Zuzendaritza Batzorderako deia egiten du eta horren buru da. Batzorde horretan kalitatezko botoa izango du, eta erabakiak betearazten ditu.

Lehendakaria BFF-FVFren Estatutuetan ezarritakoaren arabera izendatuko da.

Bere agintaldia betetzen duen bitartean, lehendakariak ezin izango du izaera bereko kargurik bete BFF-FVFri dagokion beste batzorde batean.

**140. ARTIKULUA Adiskidetza Akordioa**

1. Zuzendaritza Batzordea gutxienez sei kidek osatuko dute, eta horien artean

lehendakaria zenbatuko da, eta kideen artean diruzaina eta idazkaria egongo dira.

2. Zuzendaritza Batzordeari dagokio:

a) Bere eskumeneko lehiaketen garapena eta amaiera zuzendu eta kontrolatzea.

b) Berehalako denboraldiko areto-futboleko lehiaketen egutegi ofizialaren proposamena egitea eta BFF-FVFko lehendakariari aurkeztea, onespen zehatza izan dezan, baldin eta lehiaketa horiek antolatzea Bizkaiko Batzordeari badagokio.

c) Honako hauek proposatzea, arrazoituta:

1. Ohoreak eta sariak ematea.

2. Hautatzaileen izendapena.

3. Areto Futboleko berariazko diziplina-organoetako kideak proposatzea BFF-FVFko Zuzendaritza Batzordeari.

4. Hautaketa-partidak non egingo diren.

d) BFF-FVFren Zuzendaritza Batzordeari urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen urteko ekitaldiko aurrekontua proposatzea.

e) Bere ahalmenak erabiliz emandako xedapenak argitaratzea, BFF-FVFren idazkari nagusiaren bidez, zirkular bidez.

**141. ARTIKULUA Areto Futboleko Arbitroen Batzordea**

Arbitroen Batzordea Areto Futboleko Bizkaiko Batzordearen organo teknikoa da, eta bere eskumenen barruan arbitraje-erakundearen gobernuari, administrazioari eta ordezkaritzari esleitzen zaio.

Gainera, diziplina-ahalmenak ditu, baina elkargokideen jardunaren alderdi teknikoetara mugatuta, bai eta elkargokideen prestakuntza, gaikuntza eta titulazioa gauzatzera ere.

Arbitroen Batzordeko lehendakaria BFF-FVFko lehendakariak izendatuko eta errebokatuko du.

## VII LIBURUA

## JURISDIKZIO ETA ADISKIDETZA BATZORDEA

**142. ARTIKULUA Eskuduntza**

1. Jurisdikzio eta adiskidetze Batzordeari dagokio galdera, eskari eta erreklamazioak jaso eta ebaztea, diziplina eta lehiaketa arlokoak ez direnean, eta BFF-ren federakunde-antolaera osatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoen artean sortu eta ebazten direnean. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo Lurralde Federakundeen eskumenei, ezta dagokion jurisdikzioak berezko dituen eskumenei.

2. Osatzen dutenek Adiskidetze Batzordearen partaideak izango dira, ez dira sei baino

gehiago izango, Presidente bat eta besteak bokalak, Zuzenbidean Lizentziatuak edo kirol esperientziarekin, eta ezin dira beste disziplina kirol organu batean egon, FVF-BFF-ko Zuzendaritza Batzordeak izendatuak.

**143. ARTIKULUA Prozesu Hasiera**

Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeari idatziz egingo zaizkio erreklamazio edo eskaerak, eta ondokoak jaso beharko dira: erreklamazioa eragin duten gertaerak, dagozkion frogak, argudiatzen diren lege-arauak eta eskaera bera.

**144. ARTIKULUA Espediente Irekiera**

Erreklamazio edo eskaera aurreko artikuluan ezartzen den eran aurkezturik, eskumena duen Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeak espedientea irekiko du eta aldeei hitzordua emango die.

**145. ARTIKULUA Adiskidetza Akordioa**

Aldeak bertaratzen badira, lehenengoz hitza emango zaio erreklamazioa egin duenari, eta horren ostean aurkako aldeari. Gero, aldeetako edozeinek nahiz Batzordeak berak esku hartu ahalko du, egokitzat jotzen dituzten proposamenak edo kontraproposamenak egin, adizkidetzeko aKordioara iristeko.
Adiskizkdetze akordiora iritsiz gero, parte hartzaileek eta batzordeak sinatuta, parteen aurrean ondorio juridiko osoak izango dituen aktan dokumentu da berau.

**146. ARTIKULUA Alegazio Eta Ebazpenak**

Alde bat edo bietako inor agertuko ez balitz, edo agertuta ere akordio batera iristen ez badira, horrelaxe agertuko da aktan eta espedienteari jarraituko zaio horien entzuteekin eta hobeto betetzeko adosten diren proben eta eginbideen praktikak eginez, Batzordeak ebazpena eskatuko lieke interesdunei ofizio, fax, gutun, telegrama, posta elektroniko edo jakinarazitako ekimenaren data eta identitatea agertzen den beste edozein bitartekoren bidez jakinaraziko dien gertaeren baldintza adierazpenarekin eta eskubide oinarriekin.

**147. ARTIKULUA Espedienteen Bateratzea**

Gai bati nahiz horri lotutako batzuei buruz hainbat erreklamazio edo eskaera egingo balira edo alde gehiago aurkeztuko balira, Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeak erabaki ahalko du horiek guztiak batean bildu eta guztiei buruzko ebazpena batera ematea.

**148. ARTIKULUA Bukaera**

Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeak ebazpena ematen duenean kirol-bidea agortutzat emango da, Kirol Justiziako Euskal Batzordean helegitea aurkezten ez bada, azken horrek eskumena duen gaietan.

**149. ARTIKULUA Ebazpenen Errebisioa**

1. Kirolbidea agortzen duten Jurisdikzio eta kontziliazio Batzordearen ebazpen finkoen aurka, euren aurrean ezohizko errebizio helegitea aurkeztu ahal izango dira, ebazpena eta gero elementu edo egintzak ezagutzen direnean eta ezin izan ziren ebazpena ematerakoan; instantzia hau errebisatu nahi den ebazpena eman eta sei hilabeteko

epean, indargabe geratuko da.

2.Helegitea aurkeztean ez da inolaz ere ebazpenaren betearazpena eten edo geldiaraziko.

**150. ARTIKULUA Ebazpenen Ejekuzioa**

1.FVF-BFF-k, bere eskumenen eremuan, egokitzat dituzten neurriak hartu ahalko dituzte Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordearen ebazpenak eragingarriak direla eta Araudi Orokorreko 7.c.3 artikuluak ezartzen dituen betebeharrak betetzen direal ziurtatzeko, hurrengo neurriak har ditzake:

a) Federakunde zerbitzuen ezeztatzea.

b) Txapelketa eta partidu antolaketa eta ospaketa debekatzea, hauetan parte hartzearena, izaera ofizialekoak izan ezik.

c) Jokalari, entrenatzaile edo beste tekniko baten, lizentzien expedixio edo berriztapena debekatzea.

d) Beste edozein zeintzuk ez diren eststutu edo araudi dispozizioen kontrakoak eta zeintzuek hitzarmen edo betebeharra betetzerako onak direnak.

2. Ejekuzio neurrien adopzioa beti izangoi da,ebazpena bete behar duen pertsona fisiko edo juridikoak eduki ahal duen erresponsabilitate disziplinarioan ereagina izan gabe.

**151. ARTIKULUA Ekintzen Preskripzioa**

1. Jurisdikzio eta Kontzilliazio Batzordeari dagokionez, bete behar diren ekintzak preskribituko dira, aztertu diren gertakariak jazo eta 6 hilabetera, ekonomia arloko neurriak ez badira. Azken horiek betetzeko epea 3 urtekoa izango da, diru hori jasotzeko eskubidea onartzen den egunetik zenbatuta.

2. Preskripzioa eten egingo da dagozkion ekintzen bidez soilik, eta uko egin ahal zaio, nahiz eta berariaz adierazi ez, eta berariaz adierazi ez dela ulertuko da preskripzioa salbuespen gisa eskatzen ez denean.

**BESTE XEDAPEN BATZUK**

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Federazioaren ordenamenduan pertsona fisikoei buruzko termino guztiak berdin aplikatzen zaizkie futbolari, areto-futbolari, emakumezkoen futbolari eta hondartza-futbolari eta berdin aplikatzen zaizkie gizonei eta emakumeei.

**INDARGABETZE-XEDAPENA**

Honako Araudi honetan ezarritakoaren aurka doan arau-xedapen oro, maila bereko nahiz txikiagokoa dela ere, indargabetzen da.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehena.-** Zirkularretan, lehiaketen oinarrietan edo BFF-FVF-k argitaratutako beste edozein arauditan ezarritako edozein disposizio ezingo da joan honako Araudi honetan

ezarritakoaren aurka. Hala balitz, ez emandakotzat joko da.

**Bigarrena.-** Honako Araudi Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratzean sartuko da indarrean.